

ARGIA



ANIMALIEN ERABILERA JAİETAN DESEROSO BIHURTZEN ARI ZAIZKIGUN TRADIZIOAK

» VENEZUELA: GATAZKA MEDIATIZATUA ULERTZEKO GAKOAK

» TXOMIN PEILLEN: "BADIRA IDAZLEAK BEHAR DUTENAK BESTE GUZTIAK BEHERATU"

» ANTZIN: EREMU MISTORA ETA D EREDURA JAUZI EGINGO DUEN HERRIA




Egunero lan berriak sareratzen ditugu
2.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.



Ekitaldiak

Dantza, musika, antzerkia... askotariko emanaldiak klik batean.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Suteak Portugalen, 2003, 2017...

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 19 Bixente Serrano Izko
- Itziar Bardaji Goikoetxea



Eskuin kolpe globala Venezuelan; gatazka mediatizatua ulertzeko gakoak azaltzen dizkizuegu. (ARGAZKIA: SANTI DONAIRE)

- 36 BIZI BARATZEA
- 38 ARGIA KOMUNITATEA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: KOLDO AMESTOY
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: ALAITZ LIZARRALDE

SAKONEAN

- 12 | Txomin Peillen: "Inork ez zuela idazten esaten zigun Andimak, eta idazten hasi nintzen" / Miel A. Elustondo
- 20 | Venezuela, neoliberalismoaren ekaitz perfektua / Axier Lopez
- 25 | Iñaki Colina: "HMEIk egoera prekarioan utzi ditu familia asko" / Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
- 26 | Askeintza: "Ez ditugu kaiola handiagoak nahi animalientzat, kaiolak desagerraraztea baizik" / Mikel Garcia Idiakez
- 30 | Askatasunaren Ibilaldia: Herri bat martxan / Urko Apaolaza Avila
- 34 | Antzin: Eredu mistoa eta D eredua, erraldoi pausoak ofizialtasunerantz / Ane Eslava Serrano
- 41 | Deborah Stratman: "Editatze-gelan egiten da zinema" / Lur Olaizola, Victor Iriarte
- 44 | *The handmaid's tale*: Aske izan nahi dut, ez ausart / Gaizka Izagirre
- 45 | Jaietako kontzertuak Hegoaldeko hiriburuetan: Zer egin dugu gaizki? / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 46 | Gipuzkoako Herriartekoa: Gizonen artean / Ane Labaka Mayo

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AUERRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoo, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asumendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzat harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginaz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



PANORAMA

Logikaz armatuta

Denborak aurrera egiten du ezinbestean eta berarekin batera gizarteak. Baina denborari eta logikari berari aurre eginez, gotortuta geratzen denik bada, **tradizioa** ezkutu hartuta. Mundu osoan dira horrelako kasuak, gehienak erlijioarekin lotutakoak eta gehienetan emakumeak jo-puntu dituztenak. Logikaren kontra doan pentsaera horrek gurean Irun eta Hondarribiako alardeetan agertzeko tradizioa du. Urtero emakumeak jaietan parte-hartzea oztopatuz, diskriminazio sexistari maila ofiziala ematen diote, Gipuzkoan agintean diren EAJ eta PSE-EE alderdien babesari esker. Zorionez, logikari urtero eusten dionik bada, inori debekurik ezarri gabe jaiak normaltasunez ospatzeko eta aldarrikatzeko prest kalera ateraz.

Argazkia: Gari Garaialde (Bostok Photo) · Testua: Axier Lopez



Gaizka Izagirrek hauspotuta, ehunka film gomendatzen ari dira txiolariak, #30egun30film traolapean.

t "Film Gogokoena Fitzcarraldo (W. Herzog)"

@ttunttunbrigade

t "Dancing in the dark"

@jonabril

t "Zoriontsu egiten nauen filmetako bat: Moonrise Kingdom"

@enekolazabal

t "Barrez lehertzeko onena Mel Brookesen Young Frankenstein"

@JWalino

t "Beldurrezko film gustukoena: Funny Games (Michael Haneke)"

@Ane_Amenabar

t "Dokumental Onena, The King of Kong: A Fistful of Quarters"

@demonocracy

t "Pertsonaia Gogokoena, Tom Reagan (Gabriel Byrne, Miller's Crossing)"

@ororostorm



EAEk turismo gehiago jasan dezakeela uste du Jauraritzak

Xalba Ramirez

@xalbaram

EAEko turismoaren jasangarritasuna ikertu du Jauraritzak aurkeztu berri duen txostean. Datuen arabera, 2017ko lehen hiru hileroan %9ko igoera izan du, baina oraindik "hazkunde margen handia" duela esan du Alfredo Retortillo Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak.

Aztertutako herri eta hiriek, eta lurraldeak bere osotasunean, duen saturazioa ikertu dute Deustuko Unibertsitateak eta In2destinations enpresak. Gasteiz, Bilbo eta Donostiaz gain, Gernika-Lumo, Guardia eta Zarautzeko joerak aztertu dituzte.

EAEko BPGaren %6 da turismoa eta 97.000 pertsona egiten dute lan, garairen arabera. "Errekorretan tematu gabe",

hazkundera ondo monitorizatu behar dela azpimarratu dute.

Hiru hiriburu eta doazen turistak nola mugitzen diren ere ikertu du lanak. Donostiaren kasuan %71,3a ez da hiritik ateratzen eta %100 Parte Zaharrean eta zona komertzialean mugitzen da gehienbat. Bilbotik ateratzen diren turistak %65a dira eta gehienak Gaztelugatxera, Urdaibaira eta Donostiara doaz. Gasteiztik %62a ateratzen da Bilbora, Guardia eta Ulibarrira.

Herritarrek duten saturazioaren gaineko pertzepzio subjektiboaren inkesta bat egin dute, eta guztiek antzematen dute egunero-kotasunean turismoaren gorakada nabarmen bat. Hala ere, turismo sailburuak azpimarratu duenez, "herritarrek, beste leku batzuekin alderatuta dauden saturazio mailak ez dituzte antzematen".

"Urkullu jauna, batu zaitez parekidetasunaren festara"

OIHANA ETXEBARRIETA, EH BILDUKO LEGEBILTZARKIDEA

EAEko lehendakaria ez da Irunen izan San Martzial Egunean, alarde parekidea babesten, Etxebarrietak aurretik eskatu zion moduan. Jauraritzak parekidea begi onez ikusten duela eta Emakundeko zuzendaria bertan izango zela aurreratu zuen Urkulluk. Berriz galdetu zion Etxebarrietak: "Guk galdetzen dugu non egongo zaren: jai parekideen alde borrokan ari direnekin ala besteekin? Batu zaitez parekidetasunaren festara". 2017-06-23



Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ARGIA

ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545



TOPATU

EHZ festibalak "auzolan erraldoia" eskatu du

Gorka Bereziartua / Urko Apaolaza

@boligorria / @urkoapaolaza

"Pena handiarekin" hartu dute jaialdia ezeztatzeko erabakia Euskal Herria Zuzenean-eko antolatzaileek, baina aseguru etxeekin, festibalari laguntzen dioten boluntarioekin eta teknikariek hitz egin ondoren ondorioa argia zela esplikatu zuten ostiralean egindako prentsurrean: ezin zutela jaialdian parte hartuko zutenen segurtasuna bermatu.

Hemendik aurrera zer egin erabakitzea "denon ardura" dela esan dute antolatzaileek eta gogora ekarri dute festibalaren geroari buruzko gogoeta abian dela, zeregin horretan ariko direla aurrerantzean.

"Elkartasun erauntsia" beharko dutela ere azpimarratu zuten jendaurrean, "bakoitzak bere modura" lagundu dezakeela: "Desmuntaketa lanetan laguntzeko esku kolpe bat emanez, bakoitzak bere herrian EHZren aldeko ekitaldi bat antolatuta, edo gure banku kontuan elkartasun ekarpen bat eginez", adierazi dute. "Antolatu dezagun EHZren aldeko auzolan erraldoi bat".

1996tik antolatzen den jaialdia ez dago momentu ekonomiko onenean. 2014an ekaitz batek jaialdia hondatu zuen eta zulo ekonomikoa ekarri zion. Lazko abenduan, aurtengo jaialdiko kartela aurkeztu zuten egunean, azaldu zuten 100.000 euroko zorra daukela festibalak. Horri aurre egiteko crowdfunding kanpaina jarri zuten abian, 30.000 euro lortzea helburu.

Nolanahi, garbi utzi dute EHZ hiru eguneko festibala baino gehiago izan dela beti: "Gure baloreetan oinarrituz, Euskal Herria Zuzenean elkarteak aitzina segitu behar du, eta segituko du; bizirik, bat eginik eta geroari so indarrez beterik".

Elkartasun keinuak edonon

Jaialdia bertan behera utzi eta berehala iritsi zaizkio EHZri elkartasun keinuak, bai sare sozialetan eta bai ekitaldien bidez ere. Donostiako Egia auzoko Bukowski tabernan, esaterako, hamar bat musikari eta talderen kontzertua inprobisatu zuten igandean festibalaren alde. Desmuntaketa lanetan, berriz, hamaika lagun aritu da eta "esku garbitu ahal den guztia" kendu dute jadanik Lekorneko Garrotik.

EKONOMIAREN TALAIAN

AHT: lotsak eta erantzukizunak



Juan Mari Arregi

Gobernu orok herritar guztien alde egin behar du, ez soilik aukeratu duten horien alde. Jendarte horretan sorturiko arazoak eztabaidatu egin behar-ko lirake inongo erabakirik hartu aurretik. Baina EAEko gobernua ez dirudi horretarako asmorik duenik, alderantziz, jendarteko zati txiki baten zerbitzura jarri dela ematen du. AHTrekin dugun arazo larriaz ari naiz, zergadunaren milaka milioi euro erabiltzen ari baitira bere etorkizuna oraindik ezezaguna zaigun arren. Behin eta berriz aldatu dute AHT martxan jartzeko eguna, eta behin eta berriz hautsi dute hitzemandakoa.

Joan den astean Eusko Jaurlaritzak, bost hilabete lehenago gonbidatu bazuten ere, ez zuen AHTri buruzko mahai-inguru batean egon nahi izan. Katedradun, ingeniari eta sindikalistek hartu zuten parte. Nolanahi, lotsa behar duen izan administrazio horrek, *Euskal Y*-aren aldeko jarrera defendatu nahi ez izateko... Deseroso eta lotsatuta ote dago halako diru xahutzearen aurrean? Obrek segitzeko eta trena martxan jartzeko eguna behin eta berriz atzeratzen ari delako agian? Beldurra al dio beste mota batzuetako iritziei aurre egiteari, jakinik 52 milioi euro gehiago beharko direla 11 tuneletan sorturiko arazoak konpontzeko? Ez al ditu entzun nahi proiektu milioidun hau zementuaren lobbyaren eta ingeniariaren zerbitzura besterik ez dagoela diotenen arrazoi ekonomiko eta teknikoak?

Lotsagabekeria bat da, murrizketak sozialak hain handiak diren garaioan Eusko Jaurlaritzak gure diru publikoa erabiltzen segitzea azpiegitura antisozial, antiekonomiko eta ingurumenaren kontrako honetan gastatzeko. Eta gainera, iritzi publikoaren aurrean ez du aurpegirik eman nahi bere jarrera justifikatzeko. Lotsa eta erantzukizun gehiegi dira horiek ezkutatu ahal izateko.



MARC DRIESSEN

Blokeoa klima aldaketari

AMSTERDAM. 300 bat lagunek, desobedientzia zibila praktikan jarritz, Amsterdamgo portuko OBA meatze-konpainiaren jarduna geldiarazi dute egun batez, 9:00etatik 18:00ak bueltara arte. *Alarma gorria* ekime-nak klima aldaketaren larritasuna azaleratu nahi izan du. Lau eguneko klima kanpaldia ere egin dute. "Jende askoren bizitza, bereziki Hegoalde Globaleko jendearena, dagoeneko suntsitu dugu eta gora doaz desagertzeko bidean dauden animalia eta landare espezieak. Petrolioia, gasa eta ikatza lurpean utzi behar ditugu".

Iruñeko langile baten aldeko borrokaldia

Xalba Ramirez
@xalbaram

Iruñeko Koi Sushi jatetxean jasan dituen bidegabekeriak salatu ditu langile batek. Horren ondorioz, kaleratu egin nahi dutela ohartarazi du Langileon Autodefentsa Sareak eta mobilizazioak hasi dituzte.

Lan-baldintzak

Langilearen lan-baldintzak hobetzeko eta zor diotena ordaintzeko, ekainaren 12an hasi zuten protesta. Ordaindu gabeko ordu estrak, kontratu-irregulartasunak, atsedenerako aukera eza eta oporrak ukatzea izan dira salatu-tako bidegabekeriak.

Elkarretaratzeak

Enpresari kontratu irregulartasunak aldatzeko proposamena egin ostean, langilearen aurkako neurriak hartu dituztela salatu dute, hari ez zegozkion lanak egitera behartuz. Mobilizazioak iragarri dituzte, *Koi Sushi ordaindu zor duzuna* lelopean.

Sarea babes

Iruñerriko Langileon Autodefentsa Sarea 2016an aurkeztu eta Gazte Boterea Eraiki jardunaldien ostean abiatu zuten. Seattle hiriko elkartasun sareak hartu dituzte eredu, langile prekarioen esplotazioari aurre egiteko tresna moduan.

ZAINTZA



9,4

orduz egunean egiten dituzte zaintza lanak emakumeek EAEn, eta gizonek aldiz 5,4 orduz, Eustatek kontziliazioaz egindako inkestaren arabera.

2

ordu egunean eskaintzen dizkiete emakumeek etxeko lanei eta gizonek 1,2. Haurren zaintzari emakumeek 4,7 ordu eta gizonek 3,3.



2 MILIOI KUTSATU

Bi milioi lagun inguruk kutsatutako airea arnastu zuten iaz Hego Euskal Herrian, Ekologistak Martxan taldearen txostenaren arabera. Osasunaren Munduko Erakundeak gomendatutako balioen gainetik arnastu zituzten substantzia kutsatzaileak, kopuruak ia beti legearen barruan egon arren.



HALA BEDI IRRATIA

Hala Bedi irratiak lizentziak banatzeko lehiaketa berria martxan jartzeko eta behin-behinean emanda duen lizentzia behin-betikotzeko eskatu dio Eusko Legebiltzarrari. 2012ko lizentziabanaketa prozesuan gertaturiko irregulartasunak ikertzeko ere eskatu du.



ALTSASUKO AFERA

Altsasuko hiru gazteak jasaten ari diren kartzelaldi prebentiboa, isolamendua eta banantzea amaitu daitezela eskatu dio Nafarroako Gobernuak Espainiako Justizia Ministerioari.

Portugal: erre 2003an, erre 2017an eta hurrena noiz erreko zain



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Portugaleko ekaineko sutean ustekabeak bere lana egin du, kasualitate tragikoa behar baitu erreka polit batean bainatzen ari direnak suaren ihesi blokatuak aurkitzea errepide batean. Baina, gainerakoan, Pedrogão Grande eta inguruak kiskali dituen hondamendiak erakusten du zein garestiak izango diren klimaren aldaketak eragingo dituen kalteak eta zein gutxi dauden gure gizarteak prestatuta horiei aurre egiteko.

Asko da Portugalen ekainaren 17tik 18rako gauean piztutako suteek kiskali dutena. 64 hildako, horietatik 47 Pedrogão Grandeko errepide madarikatuan, bi gehiago desagertu, 204 zauritu, dozenaka herri eta auzo txikitan kalte handiak, 45.000 hektarea soro eta mendi errauts bihurturik... Antonio Costa lehen ministroak esan du izan dela urtetan Portugalek suarekin ezagutu duen tragediarik handiena. Lehena izan ez den moduan, ez da izanen azkena.

Tximista lehor batek basoa piztu zuen artean, Pedrogão inguruko paraje berdeek akatsik ez zuten Lisboatik bezala beste hirietatik bake bila hurbiltzen ziren kaletarrentzako. 3.000 suhiltzaile eta boluntarioen artean garrak menderatu ezin izan dituztenean ohartu dira paisaia bukoliko hark etsaia zeukala gorderik, papera bezala erretzen den eukaliptoak, denek orain ezbeharraren errudun izendatzen duten zuhaitz ase-sinoa. Ez berez sortua, ordea.

Urte bete barru inor ez da akordatuko eta han, Gipuzkoan eta Bizkaian bezala, jarraituko dute sasiak hartutako mendiak pinuz eta eukaliptoz landatzen. 2003an piztutako alarmak bezala itzaliko dira oraingoak ziurrenik. 2003ko uda ere bereziki beroa izan zen, Euskal Herrian bezala Portugalen. Suteak ikaragarriak izan ziren orduan ere. Urte gutxi geroago, 2006an, Nazio Batuen Erakundearen babesean suteen jarraipen eta ikerketa egiten duen IFFN *International Forest Fire News* buletinak alerta ja

zuen 21 orrialdeko txosten mamitsuan: "Portugaleko 2003ko mendietako suteen erro sakonak".

2003an portugeselek beren lur eremuaren %4,3 galdu zuten erreka (greziarrek %4,6, Espainiak %1,3), 160.000 hektarea. Orduko marka aurten haustekotan, ekainekoa halako lau kiskaltzen ikusi beharko dute.

Portugal Atlantiko itsas bazterrean dagoen arren, klimaz gehiago da herrialde mediterranea, honek berekin dakarrela suteen arrisku handiagoa. Klimaren aldaketak, gainera, Grezia jarri du Espainia eta oro har Mediterraneo bazter guztia bezala beroketa globalaren kaltetuenen artean.

Baso eta sastraka artean Portugalek 3,2 milioi hektarea baldin badauzka, 1,7 milioi dauka pinuz eta eukaliptoz josita, basoen erdia baino gehiago. Gainerakoetatik, 0,7 milioi hektareatan artelatzen hazten ditu, herrialdearen ekonomian historikoki hain garrantzitsua izan den kortxogintzan erabilia. Elkarrekin talka egin dute espezieok azken hamarkadetan: artelatzen diru ona eman arren eskulan ugari eskatzen du; aldiz, pinu eta eukaliptoak interesatzen zaizkio papergintzako industriari.

1970eko hamarkadatik hona, urtetik urtera ugaritu dira suteak Portugalen, kointzidituz nekazaritzan gertatu diren aldaketa sakonekin. Baserritarrek urritu dira, herriak hustu eta lehen sasi eta basoak garbitzen zituzten aziendak desagertu nekazariekin batera. Aban-

donatutako lurak baso berritzerakoan administrazioak kontutan hartu ditu lur jabeen eta paper industriaren interesak, lurralde antolamendua egokitu gabe nekazaritzaren beharrei. Ondorioz, suteak prebenitzeko planetan ez dira kontutan eduki ez lekuko laborariak, ez espezieen aniztasunaren garrantzia, eta agintariek sustatu dituzte zuhaitz espezieerik sukoienak, eukaliptoak eta pinuak.

Eukaliptoak ez zen bere oinez etorri

2003ko suteak ikusita, idatzi zuten IFFNren txostenean: "Pinuak eta eukaliptoak izugarrizko garrantzia daukate Portugaleko basogintzaren ekonomiarantzako, horregatik ezarri behar dira suteak prebenitzeko neurri zorrotzak. Baina ekonomikoki errentagarriak ez diren guneetan zuhaitz mota horiek galarazi egin behar dira, horien ordez lehenetsiz suari aurre hobeto egiten dioten eta ingurumenaren bezala paisaiaren aldetik etekin hobeak ematen dituztenak".

Aldatzea neketsua izan, ordea. 2013an, hamar urte geroago, egoerak berdin edo okerrago jarraitzen zuen, *Eco 123* guneak erakutsi zuenez "*Monchique and Eucalyptus in Portugal*" artikuluan. Herri txiki baten kasua aipatzen du landa eremu gehienaren egoeraren iruditza.

Algarveko (hegoaldean) Monchique udalerrian (6.000 biztanle) mendi eta basoen %76 eukaliptoz osatuta dago gaur ere. 2003ko suteetan lur eremu





'El Comercio' egunkariaren gunetik hartutako irudian, ama semeak Figueiro dos Vinhos inguruetan errepidetik ikuskatzen suteak bazter guztietan eragindako txikizioak. Suteen prebentzio planetan arreta gutxiegi egiten zaio gero eta urriagoak diren nekazari familiok ingurumena babesten egiten duten lanari, baina nola egin aurre arrisku berriei horiek gabe? Administrazioak bere zerbitzuak murriztuta, sarritan sentitzen dira abandonaturik hondamendien kontrako borrokan.

osoaren %80 kiskali zitzairen, errauts bihurtu diren etxalde asko, milaka erlauntz, azienda, artelatz, kortxo lantegi... baina hamar urteren buruan beti landare eta paisai bera.

Urte asko lehenago, 1991n, aste oso bat iraun zuten suteek Monchiqueko mendietan, eta artikulugileak aitortzen du herritarrek beldur handia diotela berriro gertatzeari. "Behin eta berriro mendiak su hartzen du eta garretan suntsitzen ditu baserri txikietako azienak eta baita etxeak ere sarri. Horregatik, hurrengo sutea denbora kontua baizik ez da".

1960ko hamarkadan lur jabe handiak industriaren eta agintarien laguntzarekin eukaliptoak landatzen hasi zirenean Monchiquek ia 15.000 biztanle zeuzkan. Nekazarien exodoarekin erdia baino gutxiagora urritu dira geroztik.

Eukaliptoak indar hartzen duen eremuan lehengo landare ia guztiak desgertzen dira, agur hurritz, algarrobo, gurbitz eta artelatz. "Eta gurpil zoro batean -idatzi dute kronikan- suteek are gehiago indartzen dute zuhaitzaren inbasio ahalmena. Garrek kiskalitakoan, eukaliptoak berriro erretzen dira hazi eta sustraietatik (...) Eukaliptoak izurria bezala nagusitu dira Portugaleko eremu zabaletan eta haiekin batera ugaritu dira oihaletako suteak. Zuhaitzen olio lurrinkorrak oso sukoiak dira. Suteok eragindako kalteak milaka milioitan zenbatzen dira, kalte ekologikoak kalkulatu ezin dira eta horiek gizartearen, osasunean eta kulturaren dakartzaten ondorioak ez dituzte kontutan hartu agintariek".

Eukaliptoak, ordea, ez da bere oinez etorri Australiatik, Nafarroako mendiak

ezpelik gabe gorri utzi dituen zomorroa bere kasa iritsi ez den bezala Txinatik. Paper oiletako nagusiek etekinak kalkulatu zizkieten alboko kalteen kosteak kontabilitatetik kanpo utzita. 2008ko krisi handiak mahai gainean azaldu dituen arte. Gero eta sute gehiago, gero eta suhiltzaile eta ekipamendu behar handiagoa... eta aldi berean estatua bere zerbitzu publikoetan murrizketa drastikoak egitera derrigortuta, askotan lekuko herritarrak aurkitu dira abandonatuta katastrofe ez naturalaren aurrez aurre.

Klimaren beroketak dagoeneko eragiten dituen hondamendiak garesti aterako zaizkio jendeari, oinazetan eta dirutan. Administrazioak, berriz, horiei aurre egiteko dirurik eta bitartekorik gabe utzi dituzte, zorpetuta. Hurrengo sutea ez da epelagoa izanena. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Txomin Peillen, idazlea

«Inork ez zuela idazten esaten zigun Andimak, eta idazten hasi nintzen»

Hainbat liburu idatzia da 85 urte beteak dituen idazle paristar zuberotarra. Baionan bizi da, lasai, idazten, Andima Ibiñagabeitiak iragan mendearen erdi aldera emandako agindua betez oraindik: "Idatzi, idatzi!".



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

1932, Paris. Zein dituzu lehenbiziko oroitzenak han?

Aitak bazuen ohitura, etxez etxe kanbiatzekoa. Ez zen sekula lasai egoten ahal leku batean. Ni Montmartren jaio nintzen. Bi urte egin nituen han. Gero, beste etxe batera kanbiatu ginen, eta beti horrela. Garai hartan baserri txikiak hainbeste ziren Parisen, eta gu haietan bizi izan ginen, beti alokairuan. Badut orduko *banlieu* eta arrabaletako oroitzenak, baina oso toki trankilak ziren, baserri giroa zegoen, esneketariak zebiltzan etxez etxe esnea saltzen. Gerra etorri zenean, fite partitu ginen: bi urte pasatu genituen Zuberoan, 1939tik 41eraino. Horrek salbatu gintuen.

Zer esan nahi duzu, salbatu?

Jaten genuen. Zegoena. Ogirik ez zen, baina artoa. Artoa, artoa eta artoa. Garia eta irina Frantzia iparraldetik zetorren, eta hura alemanek hartua zuten. Gu Petain pean geunden, mariskalaren ohoretan kantatzen genuela oroitzen naiz. Ongi bizi zen Zuberoan. Baina Parisera itzuli behar zen, eta han ez zen jatekorik. Zuberoatik itzuli eta lehenbiziko sei hilabeteetan ongi bizi ginen, zeren eta txerri bat lortu genuen, eta

hura hilda, txerrikiak pasatu ahal izan genituen, txorizo, tripot eta lukainka, Frantziako barneko muga. Trenean ginen, eta halako batean, soldaduak. Ez ziren alemanak, austriarrak ziren. Jaitsi ginen trenetik, amak hanka hautsia, eta soldaduaren galdera: "Baduzue deus deklaratzekorik?". Eta gure amak, hanka hautsi hura erakutsiz: "Hauxe!". Eta berriz igoarazi gintuzten trenera, gure txerriki eta guziekin. Sei hilabete iraun genuen haiekin.

Gerla bukatu zen.

Baina goseak iraun zuen, zeren eta Frantziak ez zuen burua altxatzen. Marshall plana etorri zen, Frantzia laguntzera. Burdinbideak deseginak ziren. Tren geltokiak eta denak. Frantses erresistentziak eta aliatuek dena desegin zuten, alemanek ez zitezen Alemania defenditzera heldu. Garai tristea izan zen, nahiz eta haurrontzat oso menturosoa izan, emozioz bete. Kar, kar...

Frantziako erresistentziak badu loria.

Loriatik guti erresistentziak. 1943ra, jendeak zer pentsatzen zuen Frantzian? Petain! Petainek salbatuko zuela Frantzia. Stalingrad erori zenean hasi

zen jendea bestela pentsatzen. Eta aliatuek Afrikan irabazten zutela, eta han frantsesak ere bazirela ikusi zutenean. Ordu arte, Petain. Etxe guzietan ere bazen haren erretratua, banatzen zen eta etxeetan eta saltegietan eta denetan ezartzen zen.

Txomin Peillen Karrikaburu

Paris, 1932

Parisen hazia, bertan egin zituen ikasketak. Biologia irakasle izan zen Parisen 1982an Pauera joan arte. 1993an Baionako unibertsitateko irakasle zen. Frantziako hiriburuan dira Txomin Peillenen oinarriak: Andima Ibiñagabeitia eta Jon Mirande ezagutu zituen. Lehenak eraginik da idazle. 1964an Txomin Agirre saria irabazi zuen *Gauaz ibiltzen* dana polizia nobela beltzarekin, eta beste bi aldiz ere irabaziko zuen sari bera. Hogeitaka libururen egile da, literarioak batzuk, ikerlanak, berriz, gehienak.



Gerla gorabehera, Parisen hazi zinen zu. Han egin zenituen ikasketak.

Gaizki abiatu nintzen ikasketetan. Sar-tzean, hamabost egun lizeoan eta, bat-batean, eritu nintzen eta hiru hilabete pasatu nituen ospitalean. Gosea eta beste gauza asko izan ziren. Gero, berriz abiatu nintzen ikasten, baina nekez abiatu, beti atzerapenekin nintzen. Hinki-hanka ibili nintzen. Gainera, Zuberoko azentu bitxia nuen frantsesez mintzatzen nintzenean, eta galdetzen zidatenean, “euskalduna naiz”, esaten nuen beti. Beti. Burges semeen eskola zen, gehienbat. Eta ez nuen paristar lagun bat ere izan, burgesak ez baitziren gurekin gurutzatzen. Lagunak egin ditut bretoiak, eta bat vietnamdarra.

Bretoiak zure bidean. Jon Mirandek ere lagun zituen bretoiak.

Bai. Bretoiak Montparnassetik iristen ziren Parisera. Nire lagun bretoi bat dantzazale eta kantuzalea zen. Esan zidan bazutela bretoi etxea, eta han bretoiara ikasten hasi nintzen. Egun batean esan zidaten euskaldunak joatekoak zirela bretoi etxera, dantzari eta kantariak. Joan nintzen, eta euskaraz hasi nintzen, pixka bat, ahantzia bainuen. Dena konprenitzen nuen, baina hitz egiteko oztopoak nituen. Galdetu nien euskaldun haiei nondik helduak ziren, eta Parisetik helduak zirela. Entzutea banuen abertzaleak bazirela Parisen, baina ez nekien non deabru ziren. Euskal gobernuaren delegazioaren etxean biltzen zirela esan zidaten.

Eusko Jaurilaritzak Marceau karrikan zuen ordezkaritza ari zara.

Euskalduna nintzelarik, euskaldunekin harremanetan sartu nahi nuela esan nien, eta esan zidaten zein egunetan biltzen ziren. Eta joan nintzen. Ostegunean biltzen zirela uste dut, arratsaldeko zazpietan, kanta probak egiteko. Okertu nintzen, eta ordu bat lehenago heldu nintzen. Sartu nintzen ordezkaritza eta behean inor ez. Igo nintzen lehen solairura eta han gizon batek, zer ari nintzen. Nik, euskalduna nintzela, eta han biltzen zen euskaldunen taldekoa izan nahi nuela. “Zergatik?”, galdetu zidan berak, eta nik, euskalduna eta abertzalea nintzelako. “Bada, euskaraz ikasten duzunean ikusiko dugu abertzalea zaren!” Hurrengo batean, berriz, horrela ekin zion: “Euskaraz ondo ikasten badu-

zu, eta Euskadi maite, abertzalea zara, baina ez nazionalista. Etxe honetan bada dena gaztelaniaz ari direnak, sekula ez dute hitz bat euskaraz egiten. Horiek nazionalista dira, ez abertzaleak!”.

Nor zenuen modu horretara leziatu zintuena?

Andima Ibiñagabeitia. Kar, kar... “Euskarazko mintegiak egiten ditugu, gramatika ikasteko, jadanik euskaraz badakien batekin. Hain xuxen, zuberotarra da”. Eta joan nintzen, baina ez zen erraz, batean kantuak egiten zituzten, bestean dantzan, hurrengoan euskarazko mintegi haiek. Baina joan nintzen eta hantxe ezagutu nuen, Jon Mirande. Hamasei urte nituen.

Andima Ibiñagabeitia, batetik. Jon Mirandek, bestetik.

Adiskide handiak ziren. Jon Mirandek, adibidez, ez zuen konfiantzarik nirekin. Eskutitz batean idatzi zion Andimari: “Ez aipa holakorik Txomin eta haren anaiari”. Ez dakit zer zen ez aipatzeko hori, zeren eta Andimak eta Jon Mirandek beren sekretuak baitzituzten. Mirandek bazuen beste adiskide bat konfiantzazkoa, Jon Etxaide. Mirandek urtero astebete egiten zuen Jon Etxaideren etxean.

Urte askoan Jon Miranderen gainean mintzatu behar eta zuregana jo dute batzuek eta besteek.

Hori ere bai, baina besterik ez zegoe-lako. Andima hila zen. Orain, uste dut azkena naizela ezagutu zutenen artean. Nork ezagutu du, nork ikusi du Mirandek bizirik? Haritzelarrek eta Xarritonek. Eta horiek ere hilak dira. Mirandek bipolarra zen, bazituen depresioaldiak, pesimismoz beteak, eta beste aldi batzuk, baikorrak. Baikorra zenean hasten zen idazten, abertzaleekin nahiz erregeza-leekin ibiltzen zen. Pesimismoak jota zebilenean, kasu! Hiru aldiz nahi izan du bere burua hil, eta hirugarrenean lortu.

Zerk bultzatu zintuen idazten hastera?

Andimak esan zidan: “Idatzi behar duzu, zeren eta ez baita idazle gazterik, alde batetik, eta bestetik, horrela ikasten baita hizkuntza. Idatziz ikasiko duzu”. Eta, hala ere, etxean aita eta ama euskaraz aritzen ziren, nik dena konprenitzen nuen, baina hitz egin... Urte baten buruan hasi nintzen euskaraz hitz egi-



ten. Txipitan, omen, euskaraz hitz egiten nuen. Eskolara joan eta galdu nuen. Zuberoan izan nintzenean, berriz hartu nuen. Anaiak, berriz, beti jakin du.

Andima Ibiñagabeitia, bultzatzaile.

Berak bultzatu ninduen ni, bultzatu gintuen. Hilean behin, gutienik, elkartzen ginen eta elkarri azaltzen idatzitakoa. Andimak esaten zuen: “Gai guziak erabili behar dira, baita jendea eskandalizatzen bada ere”. Mirandek 1947an idatzi zuen lehenbiziko poema, eta zer idatzi zuen? Soneto bat, gipuzkera osotuan, erranez behar duela bere burua hil.

Harremanik bazenuten Euskal Herriarekin?

Iparaldearekin, zero. Harremanak, Hegoaldearekin. Bazen etxe bat Baionan,



Euskal etxea

“Parisen bazen euskal etxea, baina bi kategoria baziren han: euskaldun peto-petoak, batetik, jende sinpleak, eskola gutikoak, euskaraz ongi zekiten. Joaten ziren euskal etxera ardoa edatera eta musean aritzera; urtean behin, bertsolari jaia ere bazen. Bestalde, baziren hitzaldiak, non euskotar abertzaleak agertzen baitziren; erdaldunak, gehienak”.

Mirande, Le Pen

“Egun batean, bazen sari bat, bretoi hizkuntzaren saria. Han joan zen Mirande. Jean-Marie Le Pen ere joan zen, bretoiak lagun baitzituen, eta han ezagutu zuten elkar biek. Le Penek esan zion Miranderi mitin bat zuela laster, eta gomiatu zuen. Eta Mirande joan. Mirandek berak kontatu zidan, azkeneraino egon zela mitinean, baina ez zuela maite izan: “Txepelak dituk! Eta, gainera, jakobinoak!”.

Beyrisen. [Eusko Jaurlaritzaren ordezkari. Villa Izarra]. Hegoaldera joan behar ginenean, handik pasatzen ginen. “Pakete hau eramango duzu?”, esaten ziguten. Beyrisetik Donostiara. Paperak generamatzan, e!, ez zen zartagailurik!

Norekin zineten harremanetan Hegoaldean?

Donostian ikusten genituen Juan San Martin, Imanol Laspiur, Serafin Basauri, Koldo Mitxelena, Aingeru Irigarai, Goizon Egaña, Telefunkin [J.J. Azurtza]... Horiek animo ematen zuten. Bestalde, bazen *Egan* aldizkaria ere, eta ez zen sobera gaizki egina. Akuitlatzen gintuen. Ez genuen besterik. Andima [Ibiñagabeitia] han zegoen bitartean, 1953 arte, bera genuen bultzatzaile: “Idatzi, idatzi!” esaten zigun. Eta Jon Mirandek

orduan idatzi zuen gehiena. Hasteko, poema gehienak, 1947tik 53ra idatzi baitzituen.

Diktadurapean Hego Euskal Herria.

Idazten genuen, baina irakurleak? Hegoaldean bai, baziren irakurle batzuk, eta laguntzaileak: [Teodoro] Hernandorena bazen, hark berotzen gintuen. Iparraldean, oro kontra. Abadeak, has-teko. Hemen, abade batzuek esan zuten eskatuko zutela Vatikanoren indexean ipiniak izan zitezen Miranderen idazki guziak. Uste dut [Piarres] Lafitte jarri zela harremanetan Justo Mokoroarekin Bilbon, joan zedin gotzainaren ikustera, eta esan zion: “Bada gure gazteentzat oso kaltegarria izango den idazle bat, Jon Mirande. Haren idazki guziak debeka litezke?”. Eta gotzainak erantzun

zion: “Debekatzen baditugu, hobeki salduko dira”. Horretan bukatu zen Mokoroarena. Mokoroa, Xabier Kintanaren idoloetako bat, baina esaten diot: “Zure idoloak, nire etsaiak, gehienak. Ez ditut maite”.

Idazten hasi zinen, Andimak agindurik...

Inork ez zuela idazten esaten zigun Andimak, eta idazten hasi nintzen, eta jarraiki behar ukan dut. Non daude besteak? Hasieran hiru ginen, gero 30, orain ez dakit zenbat garen.

Hogeitaka liburu publikatu dituzu. Inoiz esan izan duzu asko idatzi duzula, “behar-bada, gehiegi”.

Bai, gehiegi. Mirandek eta biok ez genuen berdin erreakzionatzen. Mirande haserretzen zen ikusten zuenean euskal-



dunen kultura gabezia. Ni, aldiz, ez nintzen haserretzen, idazten nuen, sortzen nituen *Gatu beltza*, *Aintza txerriari* eta holako gauza arinak, zeren eta ikusten nituen jendeak euskal literatura serioa egiten, gauza aspergarriak. Umore pixka bat ez bada, ez da ezer. Azkenean, denek ulertu dute, uste dut. Gabriel Arestik bai, ulertu zuen behar zela umorea. Baita [Bernardo] Atxagak ere. Zorionez.

Gehiegi idatzia, gutxiegi irakurria Txomin Peillen?

Frantses literaturan galdetzen duzu duela 35 urteko idazle baten izena, eta gazteek ez dakite. Eta besteek ere, ez asko. Ahaztea normala da. Uste dut ez

dugula aski egin gure lanak denek irakurtzeko moduan ipintzeko, interneten. Zeren eta, azkenean, ez baitugu irabazten. Idazleok ez gara aberasten. Dena interneten sartu, eta libre.

Andimak Parisen idatz zenezan akuilatu zintuenetik hona aldatu da gure egoera.

Gauza bat bakarrik esango dizut: hain guti ginen, ez genuen elkar jaten. Ez genuen elkar ausikitzen. Orain badi-ra ausikizaleak. Badira morroi batzuk onenak direla sinisten dutenak, eta hori frogatzeko, behar dituzte beste guziak beheratu. Lehen ez zen horrelakorik, nahiz eta batzuetan hori pentsatu jendeak. Arestik Miranderen lana publika-

Azken hitza: *El escritorzuelo de Montmartre*

“(...) Berrogeita hamar bat
Liburu eginik
Ez hintzela idazle
Onartu huen hik.

Zuzentzaile bazuten
Euskadi aldean
Hire euskara txarra
Zuzentze lanean.

Euskaraz bost idazle
Baizik ez zenean:
Hire asto boneta
Irabazi huan;

Euskaltzaindi handian
Sartu hintzenezan
Boneta birestali
Txapelaren pean.

Orain aldiz Baionan
Marraka gainean
Katu bazkatzen habil
Horik pentsamenduan”.

(Txomin Peillen, bere buruaz.
Maiatz aldizkaria, 2016ko larrazkena)

tu zuen, Aresti komunista zen, Mirande ez. [Antonio] Arrue frankista zen, karlista, baina *Egan* aldizkaria eta euskarazko beste lan asko lagundu zituen. Orduan ez zen orain bezala... ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

**EKONOMIA SOZIAL ETA
SOLIDARIOA MASTERRA**

UPV/EHU DONOSTIA

PLAZA LIBREAK DITUGU

www.gezki.eus



UPV/EHUko Giza
Bereizmen eta Zuzenbide
Razionalizazio Institutua
Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU



Komunak



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Esaerak dioenez, *La tercera és la bona*. Kataluniako independentistek badakite hala behar duela izan. Aurretik egindako bi saiakerek, 2014ko azaroaren 9ko kontsultak eta plebiszitu gisa deitutako 2015eko hauteskundeek, prozesuan aurrera egitea ahalbidetu zuten, baina garbi dago ez zutela erreferendum izaera petorik lortu. Carles Puigdemont presidenteak iragarri du: urriaren 1ean egingo da galdeketa eta “Nahi duzu Katalunia estatu independente izatea errepublika gisa?”, izango da galdera.

Ara egunkariak kaleratu du dagoeneko data horri begira egindako lehenengo inkesta. Inkestak inkesta, erreferendumaren arrakastarako gako zenbait zirriborratzen dira bertan, batez ere, biharamunean arreta guztia bereganatuko duten bi alorretan: parte-hartzea eta emaitza. Datuak onak izango lirateke independentistentzat: parte-hartze-ko asmoa %64,2koa izango litzateke, hauteskunde autonomiko eta orokor askotako zerbakietatik ez oso urrun, eta parte hartuko luketen artean aise irabaziko luke baieztokoak, %67 erdietsita. Inkestaren arabera emaitzak edozein erreferendumen estandar guztiak beteko litzukete, eta nazioartean onarpena jasotzeko eta aldebakarreko independentzia aldarrikatzeko aukera eskainiko lukete. Datuon irakurketa ez da oso katramilatsua, sektore unionistaren zati batek bozka ez ematearen ondorio zuzena baitira. Unionisten partetik birpentsatzeko moduko kontua iruditzen zait; erreferendumari zilegitasuna kendu asmoz ezezkoa desmobilizatzeak baieztoko indartu eta aldebakarreko independentzia hurbildu bailezake.

Alta, horra heltzeko kapitulu asko falta zaizkigu oraindik eta emaitza bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa izango da egun horretara nola iristen diren eta zein kontakizun gailentzen den.

Ohiko sektore espainolistaz gain, Un País En Comú-ren baitan biltzen den ustezko soberanismo demokratikoa hasi da lurra goldatzen aldebakarreko bideari eta erreferendumari zilegitasuna kentzeko. Berme guztiak dituen galdeketa bat beharrezkoa dela adierazi du Xavier Domenech-ek, eta hori ez dio inork ukatuko. Arazoa bigarren zatian dator, galdeketa berme guztiak izatea berdintzen baitu Espainiako Estatuarekin paktatua izatearekin

Ahalegin handiak egin ditu horretan Junts Pel Sí koalizioak, argi eta garbi utzi nahian aldebiko bidea hobetsiko luketela, baina Espainiako Estatuaren kalitate demokratiko baxuaren ondorioz, aldebakarreko bidea dela atakari benetako aterabide demokratikoa emateko modu bakarra. Diskurtso hori hasi da emaitza ematen nazioartean, besteak beste *New York Times* egunkariako editoriala erreferenduma egitearen alde mintzatu da jada. Espainiako Gobernuaren partetik, berriz, badirudi bide judiziala eta haren bidez beldurra areagotzea baliatuko dituztela eta legearen bandera izango dela euren errelatoaren muina.

Lehia diskurtsiboa, ordea, ez da Kataluniako mugetatik at soilik emango. Katalunian bertan ere, ohiko sektore espainolistaz gain, Un País En Comú-ren baitan biltzen den ustezko soberanismo demokratikoa hasi da lurra goldatzen aldebakarreko bideari eta erreferendumari zilegitasuna kentzeko. Berme guztiak dituen galdeketa bat beharrezkoa dela adierazi du Xavier Domenech-ek, eta hori ez dio inork ukatuko. Arazoa bigarren zatian dator, galdeketa berme guztiak izatea berdintzen baitu Espainiako Estatuarekin paktatua izatearekin, Espainiako Gobernuak legea eta demokrazia berdintzeko darabilen mekanismo bertsuarekin.

Ezinezkoa da benetako soberanista izatea ez baduzu ezer egiten subiranotasuna beti ukatuko dizula dakizunaren aurrean. Espainiako gehiengo aldatzeko zain egotea lurrikara batek Herrialde Katalanak Espainiatik bereiztearen zain egotearen pareko litzateke. Komunen diskurtsoa ez da hain komuna izan orain arte Espainian, baina Katalunia eta Euskal Herrian aspaldi ezagutzen dugun diskurtsoa da, Espainiako legeginkateari estuki lotuta gauzak aldatzeko edozein saiakera komun zulotik botatzaren duen diskurtsoa, alegia. ■

Mikel Irizarri erantzunez: euskalgintza baino euskalgintzak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusi Mikel Irizarrek baliatu zuen 20 urte baino gehiagoz iritzia idazten duen orri hau, *Elkarrekin bide bila* iritzi artikuluan errepikatzeko maiatzaren 18an Hernaniko Orona Ideo eraikinean Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen ekitaldian zabaldu zuen mezua: “Euskararen biziberritze prozesua bidegurutzetik aurrera eramateko, elkarrekin bide bila gabiltza mota askotako erakunde eta eragileak; lankidetza emankorrean eta berrikuntza aldarreakin”.

Bere kargutik hedabide independente honen titularra baloratzeko adina konfiantza hartu zuen, eta Oronako aurkezpenaz *Gaitzerdi* blogean egin nuen kronikaren titularra “bitxia” zela adierazi zuen, ez bide zuen ulertu titularra: *Euskalgintzaren zati bat eta Gipuzkoako Aldundiaren arteko lankidetza*. Artikulu honekin azaldu nahi dut titularrak bigarren bueltarik gabe esaten zuena: euskalgintza ez dela bat eta bakarra, feminismoak pluralean dauden moduan euskalgintza askotarikoa dela eta politikariek argazkietan islatu nahi izaten dutena ez dela erreala, alegia, eragile batzuek ez dutela euskalgintza bere osotasunean ordezkatzeko. Titularraz harago gehituko nuke, euskalgintzako hainbat eragile batuz sortzen ditugun elkarte makroen ordezkariak erakunde publiko baten ebentuan hitza hartzeak ez duela euskalgintzaren oinarriarekin sakoneko elkarlan eta batasunik adierazten bere horretan.

Titularra ez zuela ulertu esan ostean, Irizarrek bota zuen titular hark “egunkari ingeles haren izenburu famatua” ekarri ziola gogora: *Mantxa itsasarteko behelaino itxiak isolatuta utzi du kontinentea*. Metaforaren mezua oso ondo ulertzen da baina ulertzen ez dudana da mezu hori zer helburu-



Estitxu Eizagirre Kerejeta

ARGIA-KO KIDEA

Aldundiak euskalgintzako hainbat eragile konbokatuz egin duen “prozesu parte-hartzailea”-ren balorazio bilkuran agerian geratu da Irizarrek artikuluan aipatzen duen lankidetza ez dela berak aipatu bezain “emankorra” izan. Hitz egiten hasterako irudikatu duten euskalgintzaren eta erakundeen arteko batasun hori ez dela hainbestekoa edukietan eta planteamenduetan, ez behintzat euskalgintza osoaren kasuan

rekin igorri digun. Ez dakit Irizarrek hain maite duen “euskalgintzaren eta erakunde publikoen arteko zubigintza” diskurtsoarekin oso ongi uztartzen den

aipatutako helburua, beraz, pentsatuko dut Mantxako behelaino horren ondorioz, bakoitzaren kargutik abstraituta, bakoitzaren euskalgintza-erakunde eremutik abstraituta, partekatzen ditugun prozesu eta erabakiguneetatik abstraituta, euskaltzale anai-arrebon artean egindako txiste xalo bat dela.

Mantxako itsasartearen metaforaren edukiari buruz berriz, pista bat ematen du Irizarrek adierazpen hauek noiz egin zituen jakiteak: Oronako ekitaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiak bi urteotan euskararen alorrean markatutako estrategiak lortzeko egin zen, legegintzaldi erdiko autoebaluaketa marko horretan. Ebentotik publikoki eta hedabideen aurrean aurkeztu bazuten ere, Aldundiak euskalgintzako hainbat eragile konbokatuz egin duen “prozesu parte-hartzailea” amaitu gabe zegoen artean. Irizarrek ARGIAko artikulua idatzi zuenean ere egoera bera zen. Geroztik egin da prozesu horren balorazio bilkura, eta bertan agerian geratu da Irizarrek artikuluan aipatzen duen lankidetza ez dela berak aipatu bezain “emankorra” izan. Hitz egiten hasterako irudikatu duten euskalgintzaren eta erakundeen arteko batasun hori ez dela hainbestekoa edukietan eta planteamenduetan, ez behintzat euskalgintza osoaren kasuan. Zorionez euskalgintza baino euskalgintzak daudenez, bakoitzak jakingo du Mantxako itsasartearen zein aldetan dagoen.

ARGIA hankak lurrean ditugu eta badakigu non gauden. Mantxako kanalak alde guztietakoekin harreman zintzoetara irekita jarraitzen dugu. Noski, bakoitza den bezala errespetatuz, baita egiten duen lana ere. Harreman horietatik sortuko dira partekatzen ditugun proiektu eta helburuak, baina une askotan helburu eta proiektuak ez partekatzea natural hartu behar genuke, eta une horietan berdin harremanak elikatzen jarraitu. ■

Epaile horiek



Bixente Serrano Izko
IDAZLEA
@Bixentesi

Epaile horiek, zeinek uste duten Babel Dorrekoa Deabruak ezarri zigun zigor bat izan zela eta gu berrerosi eta euren paradisuko hizkuntzara eramane behar gaituztela.

Epaile horiek, zeinen gustuko *hablar en cristiano* lelo zaharraren nostalgia erlijioaren dogmak bezain misteriotsua den.

Epaile horiek, zeinen bi hizkuntzaren koofizialtasunari buruzko kontzeptua bien arteko hierarkia bat ezartzean datzan.

Epaile horiek, zeinek 2. mailako hizkuntza koofizialaz ez duten zertan ezer jakin, salbu-eta hizkuntza hau nola kateatu lege menderaturiko mailari.

Epaile horiek, zeinentzat bigarren mailako hizkuntza koofizialaz egiten dugunok feudalismoko halako aztarna bizidunak garen, oraindik ere halako jopuak, guk nahita glebari lotuta.

Epaile horiek, zeinek diskriminazio kargua betiere bigarren mailako hizkuntza koofizialari hartzen dioten lehen mailakoaren pareko koofizialtasuna lortzeko ahalegin ororen aurrean.

Epaile horiek, zeinen ustez administrazio publikoko lan-harremanek ez duten zertan izan 2. mailako hizkuntza koofizialaz, honen ezagutzaren baldintza onartuz, gehienez jota, sentimendu paternalista ezin esku- eta bihotz-zabalago batekin herritar koitaduekiko harremanetarako.

Epaile horiek, zeinentzat bigarren mailako hizkuntza koofizialaren hiztunok bigarren mailako herritarrok garen.

Epaile horiek, zeinen elebitasun koofiziala hizkuntza hegemonikoaren talaiatik baizik ulertzen ez duten.

Epaile horiek, zeinentzat elebitasun koofiziala traba nekagarri bat baizik ez den euren justizia-zerbitzu sagaratua betetzerakoan.

Epaile horiek, zeinen betekizun zibilizatzailea euren hizkuntza koofizial bakarraren abantailak guri barneratu araztean datzan, antzare arto-orea nola, holaxe guri lege-inbutuekin.

Epaile horiek, zeinentzat 2. mailako hizkuntza koofizialeko hiztunok bazter-nahasle apetatsuak baizik ez garen eskubidedunak izan barik.

Epaile horiek, zeinen meritu literario bakarra argudiatzeak bihurritzean datzan, euren testuetan kriptikotasunaren maisu gaindiezinak agertzeraino, “denok ulertzen dugun” hizkuntza koofizial bakarrean, zer erranik ez.

Epaile horiek, sofistikazio gutxikoak elebitasunaren koofizialtasun hierarkizatuaren aldeko euren sofisma elebarkarkeotan.

Epaile horiek, zeinek euren toga beltzez gustura estaliko luketen 2. mailako hizkuntza koofizialaren zerraldia, hizkuntza hil berri baten omenezko dola egiten.

Epaile horiek, zeinen garuneko gai grisa euren epaietako kontuan-hartuzkoen eta argudiatzeen erredakzioa bezain opakua den.

Epaile horiek, zeinen elebitasuneko soziolinguistikaren ezagutza euren justizia sena bezain eskasa den. ■

Sanferminak, herritik turistarentzat



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Bizitza ziklikoa da. Amestu, planifikatu, gauzatu, ospatu. Ospakizunak indarra ematen digu hurrengo ametserako. Festak, musika eta dantzak, eta drogak, anaitzen (*ahizpatzen* eta *nebarrebatzen*) gaitu. Alaitasuna lehertzen utzi gabe ezin eutsi bizitzaren gogortasunei.

Hamaika ospakizun formen artean, herrietako jaiak. Herrikoek lana utzi eta elkarrekin gozatzeko momentua. Badatoz *Sanferminak*.

Nire inguruko planak aztertu ditut. Etxea osatu bihurtu, bederatzi egun jarraian. Hamar orduz taberna batean lana edo ihes egin, poltsikoak (edo baten batek) ez baitu aguantatzen. Hainbat kolektiboren ahaleginak gutxietsi asmorik gabe

esan dezakegu: prekarietatea, masifikazioa eta turistifikazioa direla medio, urteak dira *Sanferminak* ez direla herritik herriarentzat, nagusiki kanpokoentzat baizik. Bertakoentzat, aldiz, lan kaskarrak: betikoen etekinerako zerbitzuen sektorean.

Urte osoan alde zaharrean turista taldeak ikusten dira, hiriaren irudi, historia eta bitxitasunak kontsumitzeko egarriz. Carrefour Express, Burger King, Viandas de Salamanca, izozkiak, pizzak, erromesendako dendak eta kamiseta zurigorriak. Hasi da prozesua: auzoa ez da izanen auzokoentzat, nagusiki kanpokoentzat baizik.

Bertakoentzat aldiz... ■

VENEZUELA

NEOLIBERALISMOAREN EKAITZ PERFECTUA

Hugo Chavezen garaipenaren ostean, kapitalismo globalizatuaren aldeko eta kontrakoen ikur eta jomuga bilakatu da Venezuela. Herrialdeak bizi duen krisi ekonomiko, politiko eta militarrek parez pare jarri ditu inperialismoaren interesak, Hego Amerikako indar neoliberalen goraldia eta ezkerreko gobernuen kontraesanak. Ideien eztabaidari pistolen mintzoa gailentzen ari zaio une erabakior hauetan, multinazionalen menpeko hedabideek nota bakarreko pieza hedatzen duten bitartean.



Axier Lopez

@axierL

ARGAZKIAK: SANTI DONAIRE

Bi urte eta erdiren bueltan Hego Amerikako eskuin neoliberalak Argentinako eta Peruko hauteskundeak irabazi ditu, Bolivian Evo Morales berriz aurkezteko aukera deuseztatu du, Kolonbiako bake akordioa blokeatu du eta Dilma Russef Brasilgo boteretik erauzi du, besteak beste. Batzuek, interesatuki, ziklo aldaketa deitzen diote, baina hitz handiegia dira horiek Bolivia, Ekuador, Kuba eta agintean diren zenbait gobernu progressista ez dituelako kontuan hartzen. Hare, zalantzarik ez da haizeak ez duela ezkerreko gobernuen aldera egiten. Eta jakina, Venezuela eta chavismoa ez dira salbu. Aspaldi ezagutu gabeko krisi sozial, ekonomiko, politiko eta militarra bizi du herrialdeak.



Krisi ekonomiko larrian sartu da herrialdea –petrolioaren prezioaren jaitsierak sakonduta– eta horren ondorioz herritarren zati handi bat hilabete amaierara heldu ezinik dago. Zatituta zegoen oposizioa indartu da azken lau urteotan eta ezkerreko hainbat sektoreen kritikak ugaritu dira Maduroren gobernuak hartutako zenbait erabakik hauspotuta. Nazioarteko finantza-botearearen, multinazionalen meneko hedabideen, AEBen eta Venezuelen interes ekonomiak dituzten gobernu neoliberalen –Espainia buru– ohiko presioa areagotu da chavismoaren aurka. Bi “lagun” indartsu galdu ditu Venezuelak, Brasil eta Argentina indar neoliberalen esku geratu ostean. Venezuelako oligarkiak

blokeo ekonomikoa indartu du eta kailean protestak, istiluak eta erasoak gertatzen ari dira ia egunero...

Nola heldu gara honaino?

Chavezek 1998ko azaroan hauteskundeak irabazi zituenetik, etengabeak izan dira chavismoa boteretik botatzeko saiakerak, 2002ko estatu kolpe militarra barne. Baina oraingo saiakerak elementu gehiago barnebiltzen ditu.

2013ko apirilera arteko hauteskunde guztiak irabazi zituen chavismoak. Azken horietan, Chavez hil osteko lehenetan, jauzi kualitatiboa gertatu zen, oposizioa hauteskundeak irabaztear izan zelako: Henrique Capriles opositorrea eta Nicolas Maduroren arteko aldea bozen %1,60ra murriztu zen. Chavismoa ahul zegoela iritzita, oposizioak kale istilu bortitzak antolatu zituen 2014 otsailean. “Guarimbass” delakoak 43 hildako eta 500 zauritu utzi zituen. Gobernuak eutsi zion erasoari eta Leopoldo Lopez oposizioko buruetako bat epaitu eta kartzelara sartu zuten istilu horiek antolatzea egotzita. Nazioarteko indar eskuindarrek Venezuelako gobernuaren aurka egiteko argudio nagusietako bat bilakatu zuten Lopez preso politikotzat hartuta. Besteren artean Espainiako gobernuak eta EAEko Legebiltzarrak eskatu zuten bere askatasuna. Gobernuaren aurkako nazioarteko presioa handitzeko baliogarria izan zen.

Chavismoaren irudia kaltetuta ateratu zen eta oposizioak, Capriles buru, 2015eko abenduko hauteskundeak jarri zituen jo-puntuan. Baita estreinako aldiz irabazi ere. Oposizioa osatzen duten talde politiko guztiak batzen dituen Mesa de Unidad Democrática-k (MUD) Asanblada Nazionaleko (AN) –Venezuelako legebiltzarra– eserlekuen bi heren irabazi zituen. Orduz geroztik, botere exekutiboaren (gobernua) eta legegilearen (AN) arteko talkak etengabeak izan dira. 2016ko urtarriletik hona ANk onartutako legeak indargabetu ditu Justizia Epaitegi Gorenak, “aginteari men ez egitea” leporatuta Asanbladari. 2016ko urrian presidentea kargugabetezari buruzko erreferenduma antolatzeko prozesua geldiarazi zuen Hauteskunde Batzordeak, sinadura bilketan oposizioak iruzurra egin izana argudiatuta. Aurtengo martxoan Asanbladari eskumen guztiak kendu eta bere egin zituen Epaitegi Gorenak hiru bat astez. 2016ko eskualdeetako hauteskundeak

atzeratu zituen gobernuak eta alderdi politikoak erregistratzeko arau berria onartu zuen, gobernuarekin kritiko diren talde txikiak zokoratuz. Ordurako, kritikak ez zetozen eskuinetik bakarrik.

“Gobernuaren estatu kolpea” eta “konstituzioaren urraketa” salatu ditu oposizioak eta nazioarteko albiste agentzia eta hedabide mainstream-aren bul-tzada interesatuari esker, gatazka nazioarteko agendetan sartzea lortu dute. Gobernuaren irudiak okerrera egin du azken urte eta erdian, eta alferrikakoak izan dira oposizioarekin negoziatzeko gobernuak agertutako borondatea, Aita Santuak eta nazioarteko hainbat herrialdetako presidente ohien babesa izanik ere. 2017arekin batera, herrialdea krisi politiko eta ekonomiko larrian sartuta, bere burua indartsu ikusten zuen oposizioak nekez izango zuen abagune egokiagorik egoera oraindik ere muturrerago eramateko. Gerra militar eta ekonomikoaren txanda zen.

Dozenaka hildako eta ehunka zauritu

Apirilaren hasieratik ekainaren 22ra arte, 75 pertsona hil dituzte zifra ofizialen arabera, beste iturri batzuek 94 direla diote eta oposizioak beste zenbaki batzuk erabiltzen ditu. Zein den gatazka politikoaren biktima eta zein ez ere borroka eremua da Venezuelen. Datuak datu, errealitatea da apirilaren hasieratik protestak bata bestearen segidan izan direla, kaleak istilu zelai iraunkor bilakatu. Maiatzaren erdialdean, Defentsa Ministerioak 2.000 soldadu mugiarazi zituen eta beste 600 eraman zituen betidanik oso gatazkatsua izan den Kolonbiako mugara, Tachira estatura.

Egoeraren gordintasun osoa erakutsi zuen 21 urteko Orlando Figueraren hilketak. Maiatzaren 20an Caracaseko Altamira plazan manifestatzen ari ziren oposizioko kideek labanez eraso egin ostean bizirik su eman zioten. 15 egunetara hil zen.

Gatazkaren alde bortitzak protagonismoa irabazi du azken hilabeteotan. EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldekide Luisi Uhartek gertutik ezagutzen du hango errealitatea eta argi du eskuinak biolentziaren alde egindako apustua gero eta agerikoagoa dela. Hiru aktore nagusi nabarmendu ditu: “paramilitarrak, Venezuelen aspaldi ari direnak baina azkenaldian hirian presentzia handiagoa hartu dutenak; oposizioaren



esku dauden zenbait auzo eta herritako Polizia batzuk eta ordaindupeko gaizkileak". Uharteren hitzetan estrategia horrek uztartzen ditu hilketa selektiboak eta azpiegitura publikoaren aurkako erasoak –ospitaleak, garraio publikoak, ikastetxeak, elikagaiak banatzeko zentroak, hornidura elektrikoaren aurkako sabotajeak eta beste–.

Urte asko eman ditu Venezuelako Mikel Zuluaga ekintzale bilbotarrak eta segurtasun ezaren gaia ere oposizioarekin lotu du. "Ordainpeko delinkuentziaren bitartez, El Salvadorreko Mara taldeen antzera antolatuta, kalean segurtasun ezaren sentazioa sustatzen ari da oposizioa. Eta kaos moduko hori, bere horretan, oso errentagarri zaie AEBei. Gobernu chavista bota ez badute ere, *nokeatuta* daukate barne mailako gatazka konpontzen. Oso ondo daki inperialismoak Latinoamerikako herrien berpiztearen bihotza Venezuela izan dela eta berau desaktibatzeak nahikoa dutela anabasa, ez dute behar beraiek babestutako oposizioaren garaipen argi bat. Oposizioa ez da homogenea, talde askoren pilaketa da eta aurrera begira oso zaila izango da hauteskundeetan betikotzea".

Venezuelan bizi den Marco Teruggi kazetari franko-argentinarrak, ekainaren 19ra arte izandako 90 hildakoak aipatu ditu bere blogean. "Zortzi dira segurtasun indarrek hildakoak, baina

gainerakoez eskuinak ez du inolako ardurarik hartzen, eta sistematikoki gobernuari leporatzen dizkio oposizioak berak hauspotutako istiluen ondorioak. Ez da kasualitatea, estrategia da. Jendartea polarizatu nahi dute 'bestearen' (chavismoa) ukazioa eta suntsipenaren bitartez. Gizartea hitz egiteko tresnak galtzen ari da".

Giro oldarkorraren erakusgarri, erreportaje hau idazten ari garen egunean oposizioko hainbat kidek Poliziaren helikoptero bat lapurtu eta Justizia Epaitegiari eta Barne Ministerioari eraso egin diete tiroz eta granadaz. Oscar Perez militarrek erasoaren egiletza aitortzen duen bideoan gobernuak (armen bitartez) botatzeko deia zabaldu du. Ez da estatu kolperako dei bakarria izan. Leopoldo Lopezek kartzelatik edo berriki Mariano Rajoy edo Donald Trumpekin elkartu den bere emazte Lilian Tintorik "armada gobernuaren aurka oldartzera" animatu dute. Voluntad Popular alderdiko aurpegi esanguratsuenak dira biak.

Kubarekiko harremanak leuntzen ari zen garai berean, Barack Obamak Venezuela AEBetako segurtasun nazionalerako etsai izendatu zuen. Ondotik, etorri da Amerikako Estatuaren Erakundearen (OEA) bitartez, Venezuela politikoki eta ekonomikoki presionatzeko erabakia, 1962an Kubarekin egin zuten bezala, OEAtik bota arte.

Hego Amerikako historia kolpistari muzin eginez baina, Venezuelako oro har, gaur gaurkoz gobernuarekiko leialtasun handia agertu du armadak. Armada ez da ordea, talde armatu ofizial bakarria herrialdean. Pasa den hamarkadan herri miliziak sortu zituen gobernuak eta dozenaka milaka herritarrek formakuntza militarra jaso zuten. Horiei gehitu behar zaizkie auzo askotan esperimentzia militarra duten talde politikoak. "Kanpo zein barne mailako injerientziei aurre egiteko prestutasuna" adierazi dute talde horiek. Eta nahi beste arma dago Venezuelako.

Herritarren bizi-baldintzak, gobernuaren etsairik gogorrena

Gobernuak boterea galtzeko duen areriorik indartsuena da herritarrentzat gero eta jazanezinagoa den krisi ekonomikoa. Azken urteotan inflazioak gora egin du etengabe, herrialdearen zorra handitu den abaila bertsuan. Nazioarteko Diru Funtsearen arabera, ekonomiak %7,4 egingo du atzera eta inflazioa %720koa izango da 2017an.

Demokrazia politikorik ez da, demokrazia ekonomikorik gabe. Herritarren beharrak asetzea eta oinarriak jartzeari etorkizunean ere hala izan dadin; bi erronka horiek dira edozein gobernu demokratikoren lehen helburuak. Lehenengoa lorgarria da, baina biga-



rrena iraultzailea da Hego Amerikan eta Ertamerikan, non herrialde guztiek oraindik ez duten lortu ekonomia kolonialaren morrontzatik askatzea. Lehen-gaiaren menpekotasuna ia erabatekoa da gehienetan, esportatzen dutenaren prezioarekiko esklabu dira. Venezuelaren morrontza horrek izen bat du: petrolio.

Mendetan inposatutako egitura ekonomikoa eraldatzea oso zaila da, baina ez daiteke esan chavismoa ez denik, saiatu, industrializazioa eta elikadura burujabetza sustatzeko saiakerak sendoak izan baitira, besteak beste. “Petrolio ereitea” deitzen diote. Baina errealtatea oso gordina da: petrolioaren pisuak BPGn ez du atzera egin, %90tik gora dago. Eta zaila dirudi horri buelta emateko moduan izatea orain, egoera ekonomikoa aurreko urteetakoa baino okerragoa izanik.

Petrolioaren prezioa altuaren errentari esker gauzatu zituen Chavezek al daketa sozial esanguratsu gehienak. 2008an kupelak 130 dolar balio zuen, egun 40 inguruan dago. Horren ondorioetako bat herrialdearen zorra handitzea izan da, gobernuak ez baitu gastu publikoa murriztu nahi izan.

“Sektore pribatuari protagonismo handiagoa ematea erabaki du gobernuak, produkzio nazionala handitzeko bide neodesarrollistatik jo du”, dio EHU-ko irakasle Uhartek egoera ekonomi-

koa hobetzeko gobernuaren neurriez galdetuta. Chavismo kritikaren eta talde ekologisten kritikak eragin dituzten neurriak dira. “Batetik, Orinocon urrea, burdina, nikel, iktza eta beste-lako lehengaiak ateratzeko lur eremua 100.000 km² handitu du. Bestetik, kanpoko enpresa gehiago ekarri asmoz, petrolio ustiatzeko baldintzak malgutu ditu eta ‘Ekonomia Bereziko Eremuak’ sortu, kanpoko inbertsioak errazteko baldintzak ezarri”.

Gainera, oinarritzko produktu askotako prezioak kontrolatzeko Estatuak ezarritako mekanismoak progresiboki ezabatu izanak ez ditu salneurriak egonkortu eta botikak eta elikagaiak eskuratzea zailagoa da herritar gehienentzat.

Zuluagaren ustez, 1998an chavismoa ez zen zerotik abiatu. “Jaso zuten estatu oligarkikoaren oinarriak ez dira desagertu eta funtsezkoak diren zenbait arazotan eragin zuzena dute. Adibidez, boterea jabetza indibidual gisa ulertzea (‘herri edo auzo honetan hauteskundeak nik irabazi didudanez, altxorra orain nirea da’), ustelkeria eta klientelismoa ere sintoma nabariak dira eta bereziki azpimarratzekoa da erakundearen eraginkortasun eza. Chavismoaren sektore asko gaitz horiek erauzten saiatu badira ere, hor diraute. Bestela ezin da ulertu, chavismotik oposiziara eta

Ezkerretik eskuinera: ehunka lagun Nicolas Maduro presidenteari adi manifestazio baten amaieran, oposizioak azken urteotan antolatu dituen mobilizazio ugarietako bat eta oposizioko buru Henrique Capriles jarraitzailez inguratuta.

kontrako norabidean, ‘bandoz’ aldatzen den pertsonen mugimendu etengabea. Askok boterea berea dela uste dute eta ez herriarena”.

Krisi ekonomikoari eta haren kudeaketari beste aldagai garrantzitsu bat gehitu behar zaie: gerra ekonomikoa. Venezuelako oligarkia eta nazioarteko finantza boterearen gidaritzapean, herritarren egunerokoan ondorio kaltegarriak eragin dutela dio Uhartek: “monetaren kanbio-tasa manipulatu dute merkatu beltzean, patronalaren hainbat taldek oinarritzko lehengaien hornidura eten eta ekoizpena murriztu dute, hiperinflazioa sustatu dute, finantza mailan herrialdea itotzen saiatu dira eta herritarrek likidezirik gabe uzteko, diru transakzioak sabotatu dituzte, besteak beste”.

Konstituzioaren moldaketa eta hauteskundeak

Urte honen bukaeran eskualdetako hauteskundeak izango dira, baina 2018ko amaierarako iragarrita daudenak mugari izango dira, orduan presidentea aukeratuko baitute. Inork ez du zalan-

tzatan jartzen egungo testuinguruan chavismoa galtzaile aterako litzatekeela edozein motatako hauteskundetan, hala adierazten dute joerek eta inkesta guztiek. Beraz, egoera politikoan, eta batez ere, egoera ekonomikoan errotiko aldaketarik lortu ezean nekez irudika daiteke gobernu aldaketa ez den beste agertokirik 2018ko amaierarako.

Chavismoak lor al dezake urte eta erdian horrelako aldaketa sakonik botere faktiko guztiak kontran izanda? Zaila dirudi, baina zalantzarik gabe ausardiak jokatu beharko du esparru guztietan jauzi kualitatiboen bila, bereziki ekonomiaren kontrola berreskuratzeari begira. Lehen apustu handia Biltzar Konstituziogilea da.

“Biltzar Konstituziogilea osatzeko deia luzatu dugu bakea bilatzeko, biolentoak eta faxistak garaitzeko, aldatu beharreko guztia aldatua izan dadin, iraultza berritzeko eta ustelkeriari, burokratismoari eta gaizki egina dagoen guztiari parez pare aurre egiteko”. Nicolas Maduroren hitzek adierazten dute prozesu konstituziogilearen aldeko apustuaren garrantzia. Botere legegile eta exekutiboaren arteko kolapsoa gainditzeko, maila handiko gune instituzional bat sortzeari ekin dio gobernuak. Honezkero 55.000 lagunek baino gehiagok eman dute prozesuan parte hartzeko izena.

Chavismoaren zenbait lorpen sozial eta esperientzia interesgarriari –demokrazia zuzenarekin lotutako botere komunalaren sistema, adibidez– maila konstituzionala eman nahi die biltzarrrak. Chavismo kritikoa ere begi onez ikusten dituen aldaketak dira, baina prozesua hasieratik bertatik kritika artean jaio da. Batetik, konstituzioa aldatzea hitz handiak dira, eta ohikoa izaten da

» **M. ZULUAGA:**

“Chavismoak jaso zuen estatu oligarkikoaren oinarriak ez dira desagertu eta horren ondorio dira ustelkeria, klientelismoa eta erakundearen eraginkortasun eza”

» **Venezuela indar neoliberalen esku erortzea kolpe gogorra lizateke boterean erreferente asko ez dituen ezkerrarentzat**

herritarrek erreferendum bitartez berrestea, baina prozesuak ez du galdeketarik aurreikusi. Bestetik, alderdi politikoak alboratuz, Biltzarreko hautagaiak sektoreka eta lurraldeka aukeratzeak gobernuak gehiengo bermatzeko eginko mugimendu gisa hartu dute askok.

Marco Teruggi kazetariak Biltzar Konstituziogilea abagune bezala ikusten

du chavismoarentzat. “Prozesu konstituziogilea aukera bat izan daiteke, gatazka ideien eztabaida demokratikora itzularazteko, chavismoa barrutik eraldatzeko eta prozesu parte-hartzailearen bitartez hauteskundeetan berriz ere gehiengoa izateko aukera berreskura dezan. Baina azken aukera izan daiteke”.

Oposizioak hasieratik adierazi du ez duela horretan parte hartuko eta beraz, zaila dirudi gatazka politikoaren konponbidea hor sor litekeenik. Uharteren ustez, asmo onak bai, baina zalantza handiak daude oinarritzko arazo konpontzeko baliagarria izango ote den. “Astearen amaierara heldu ezinean den herritarraren egoera hobetzeko balioko al du? Jendeak erabaki ekonomikoak eskatzen ditu”.

Zuluaga ere ildo beretik mintzo da: “Kafe, azukre eta irinik –Venezuelako elikaduren oinarri batzuk– lortzea ezinezkoa bada, herritarrak kalera aterako dira. Chavezek etxebizitza publikoak milioika oparitu zituen, ikaragarria izan zen, baina horren ostean etxebizitzagatik chavista izan den jendeak ez badu arepa bat erosteko gaitasunik, kalera aterako da. Horrela ez jokatze oso ideologia sendoa izan behar da. Gaitz guztiak ezin zaizkio inperialismoari leporatu, hori gobernuaren kalterako da. Funtsezko aldaketa behar da, eta hori lortzeko herritar asko eta askoren bultzada ezinbestekoa da”.

Denborak argituko ditu zalantzak, baina asko dago jokoan herrialdeko mugetatik harago ere. Venezuela indar neoliberalen esku erortzea kolpe gogorra lizateke boterean erreferente asko ez dituen ezkerrarentzat, eta bereziki bigarren independentziaren bidean sakondu nahi duten Amerikako herrientzat. ■

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak

ARGIA

Iñaki Colina [HMEI mailegu indizeak kaltetua]



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

@eagirrebeng

“HMEIk egoera prekarioan utzi ditu familia asko”

Iñaki Colina naiz, 45 urteko donostiarra. Duela hamar bat urte Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizea (HMEI) aplikatu zidan Kutxabanke eta, ondorioz, galera ekonomiko handiak izan ditut. Aukera paregabe gisa saldu zidaten HMEI baina, azkenean, ikusi dut beren negozioa elikatzeke amarrua besterik ez dela.



Hainbat etxebizitza mailegutuan aplikatzen den indizea da HMEI. Berau kalkulatzeko, finantza-erakundeek mailegutuan aplikatutako interes tasen batezbestekoa egiten du Espainiako Bankuak. Batezbesteko horrek ponderatua beharko luke izan baina, kasu honetan, ez da aintzat hartzen erakunde bakoitzaren negozio bolumena. Interes-tasak merkatuaren garapenaren eta inguruko egoera ekonomikoaren arabera izan beharko lirateke, eta HMEIk ez du hori betetzen.

Gainera, finantza-erakundeek manipulatzen egin dezakete indizea, eurek aplikatutako interesen arabera kalkulatzeko baita. Hipoteka berrien interes-tasak apur bat igotzea aski da HMEIk gora egiteko. Hala, etekin handiagoa lortze aldera, bankuek elkarren arteko akordioak egin ditzakete. Espainiako Bankuak berak onartua du indizea manipulatu egin daitekeela.

Niri azaldu zidaten HMEIk Euriborrak baino gorabehera gutxiago zituela. Amua irentsi nuen, eta horren kalteak urte askoan ordaindu ditut. Kutxa HMEI aldaera aplikatu zidaten niri, baina hau baliogabetu egin zuten epaitegietan. Ondorioz,

orduz geroztik Euribor +1 aplikatu didate. Hasieratik hori eduki izan banu, 3.000 euro gehiago amortizatu nituzkeen, eta interesetan 7.000 euro aurreztuko.

Hori diru asko da nirea bezalako familia arrunt batentzat. Hau guztia krisi ekonomikoaren baitan gertatu da, jende ugari langabezian gelditu denean, eta HMEIk egoera prekarioan utzi ditu familia asko. Maiz, indizeak eragindako galera erabakigarria izan da jende asko kaleratze prozesuetan murgiltzeko. Zorionez, nik lana daukat, eta oinarritzeko beharretarako ez dugu diru faltarik izan. Ordea, familia askok ezin dute gauza bera esan. Hainbatek hilean 300 euro gehiago ordaindu behar izaten dute.

HMEI Stop

Egoera horren kontra borrokatzeko, duela bost bat urte HMEI Stop izeneko plataforma sortu genuen Gipuzkoan. Gure aldarriak instituzioetara eraman ditugu, eta bertan HMEIren kontrako hainbat adierazpen egitea lortu dugu. Bi gauza eskatzen zaizkio Kutxabanki: indizea bertan behera uztea, eta bezeroek galdutako dirua itzultzea. Ordea,

momentuz halakorik ez da gertatu, administrazio kontseiluan HMEIren alde egiten dutelako EH Bildu, Podemos eta Ezker Anitza ez beste alderdiek.

Nolanahi ere, azken garaiotan urrats garrantzitsuak eman dira epaitegietan. HMEIren hiru aldaeretatik bi baliogabetuta daude jada. Gainera, hainbat tokitan, Bizkaian eta Araban esaterako, indizea baliogabetzat jo da bigarren instantzian. Tamalez, gure plataformako kideak epaitegietara joaten lehenak izan ginen, eta bidea itxi ziguten Pro-bintzia Auzitegiak eta Auzitegi Gorenak. Hori bai, gure borroka baliagarria izan da beste kaltetu askorentzat.

Orain, kasu asko Gorenean daude. Nik, egia esan, ez dut esperantza handirik. Justiziak bankuen interesen alde egiten du, Espainiako Estatuko alderdi nagusiek bezalaxe. Tamalgarria da HMEIk indarrean segitzea, kontuan harturik 40.000 kaltetu gaudela Hego Euskal Herrian, eta 1,3 milioi inguru Estatu osoan. Eta ez da ahaztu behar preferenteak eta zoru klausulak ere hor daudela. Gurea finantza-erakundearen iruzurraren aldea bat besterik ez da. ■

Xabier Arratibel eta Nora Barragués, Askekintza “Ez ditugu kaiola handiagoak nahi animalientzat, kaiolak desagerraraztea baizik”

Entzierroa, sokamuturra, idi-dema, asto lasterketa... Jaiekin batera, asko dira animaliekin ikuskizunak antolatuko dituzten herriak. Eta uda honetan ere, kanpaina abiatuko du Askekintza animalien askapenaren aldeko Donostialdeko taldeak, animaliak aisialdirako, jateko edo gure probetxurako erabiltzea ez dela zilegi aldarrikatuz.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Kokatu gaitezen. Gizakiokin alderatuta, zein eskubide dituzte animaliek? Nola ulertu behar ditugu eskubide horiek?

Nora Barragués: Ez nuke animalien eskubideez hitz egingo, animalien ongizateari lotzen zaion kontzeptua delako eta guk nahiago dugulako animalien askapenaz hitz egin: kontua ez da animalientzat baldintza hobeak eta kaiola handiagoak eskatzea, zuzenean kaiolak desagerraraztea baizik. Azken finean, ongizateaz ari garenean ez da animalien askatasuna bermatzen, atzean dagoen diskurtsoa delako animaliak sufrimendurik gabe bizi eta hiltzea, baina guk dioguna da animaliek aske bizi behar dutela.

Xabier Arratibel: Gure abiapuntua da animaliak ez izatea gizakion bitarteko, norbanako baizik. Eta horrek eskatzen du animaliarik ez erabiltzea jateko, janzteko, ongi pasatzeko... Inongo egoeratan. Abolizionistak gara, animalien erabilera abolitzearen aldeko. Terminologia inportantea da eta hedabideek

maiz ez dute oraindik ongi erabiltzen: guk ez dugu animalien aurkako tratatu txarrez hitz egiten, gu harago goaz, animalien erabilera bera arbuiatzen dugu.

Matxismoaren edo arrazismoaren pare jartzen duzue espezismoa.

N. Barragués: Norbait arrazagatik edo sexuagatik diskriminatzearen parekoa delako gainerako animaliak diskriminatzea beste espezie batzuetakoak direlako, gizaki jaio ez direlako.

Eta matxismoaren, arrazakeriaren eta bestelako diskriminazioen aurkako borrokek kontuan hartzen zaituztete, ala sentitzen duzue bigarren mailako borrokat hartzen dela zuena?

X. Arratibel: Egia da borroka politiko gisa apur bat baztertuta jarraitzen duela mugimendu antiespezistak, baina espazioak eta aldarrikapenak partekatzen ditugun heinean, gero eta gehiago hartzen gaituzte aintzat. Garai batean mugimendu feministak ere ezinikusia eta

mespretxua jasan zuen beste borroka batzuetatik, gizonak lideratutako ezkerreko mugimenduetatik adibidez, eta gaur egun mugimendu oso potentea da. Animalien aldeko borrokan ere bidea antzerakoa izango dela uste dut, hastapenetan gaude oraindik.

Beste mugimenduekiko dugun zailtasuna da gainerako animalien alde borrokatzen dugunok espezie pribilegiatukoak garela, kaiolan dauden behiak ez baitira gai mugimendu bat sortzeko, subjektu zapalduak eurak ez dira kapaz iraultza egiteko, eta ondorioz zailagoa da masak mobilizatzea.

N. Barragués: Eta horregatik agian ikusten da bigarren mailako mugimendu gisa, baina beste kolektiboak hasi dira gurea ere barne hartzen eta denon arteko loturak josten. Intersektionalitate hori garrantzitsua da, ezin ditugulako gure borrokak besteen diskriminazioan oinarritu, inkoherentea da.

X. Arratibel: Guretzat oso interesgarria da beste eragile politikoekin espazioak

partekatzea, txosnak adibidez. Hainbat herritako festetan hor gaude, beste eragile batzuekin batera, mezuak elkarbanatzen eta batzuoak besteongandik ikasten. Azken finean, justizia soziala bilatzen duten beste mugimenduekin lerratzen gara.

N. Barragués: Justizia kontua delako, eta justizia bilatu behar dugu ez bakarrik gure interesak eta gure askatasuna zapalduak ikusten ditugunean, guztionak baizik; enpatia beharrezkoa da horretarako.

X. Arratibel: Elkarrengandik ikasteko asko daukagu. Ni adibidez ekologista ere banaiz, eta munduan dagoen gauzarik kutsakorrena animalien esplotazio industrial da, animalien kontsumoa, baina ekologismotik ez da indarrik jartzen horretan. Askoz gutxiago kutsatzen du begano batek *todoterrenoan*, bizikletan dabilen haragijaleak baino. Ama lurrarekin arduratuta dagoen ekologistak, beraz, egin beharko lukeen lehenengo gauza da animaliak jateari uztea.

Herrietako jaietan animaliak erabiltzearen kontrako kanpainari ekingo diozue berriro, *Festak ospatu, animaliak askatu* lelopean. Iazko protestek eman zuten zeresanik...

X. Arratibel: Protesta guztiak dira positiboak, jendartea arduratu beharko luketen arazoak mahai gainean jartzeko balio dutelako. Hernaniko Sanjoanetako sokamuturrean egin genuen protestak izan zuen oihartzunik handiena, baina ez guregatik, bestelako faktoreengatik baizik: eraso egin gintuzten, bigantxari adarra hautsi zitzaion eta odoletan hasi zen... Baina argi daukagu gu ez garela biktimak, benetako biktima hor erabilitako animalia dela, eta erasoak erakusten duela sokamuturraren aldekoen argudio falta. Beste protesta asko egin ditugu: idi-demaren, arrantza txapelketen eta halakoen aurka, gaia bistaratzeko eta jendea aktibatzeko.

N. Barragués: Protestak egiten ditugunean denetarik aurkitu ohi dugu. Momentuan tentsioa sor daiteke baina esperientzia politak ere izaten ditugu, banatzen ditugun informazio-orriak hartzera gerturatzen delako jendea, edo umeak ikusten ditugunean gure azalpenak adi entzuten...

X. Arratibel: Bai, tentsio puntua ohikoa da, auzotarrek sarri sentitzen dutelako ongi pasatzeko betidanik egin duten



sokamuturra zapuztera goazela, baina modu injustuan lortutako pribilegioa da hori. Momentu positiboak ere izaten ditugu, jendea etortzen zaigunean esker-erak ematera edo laguntza eskaintzera, adibidez.

Errotuta dago animalien erabilera gure jaietan? Oso kultura espezia da gurea?

N. Barragués: Bai, nahiko espezia, baina gizarte guztietan bezala. Oso ohituta gaude mundu osoan animaliak esplotatzera eta zaila da hori aldatzea. Aldi berean, jakinda gure gizarte nahi-ko gizarte pribilegiatua dela, aukera daukagu inor zapaldu gabe bizitzeko hautua egiteko. Ez dakit zein puntutarraino eskatu diezaiokedan behartsu bati beganoa izateko, jatekoa lortzeko arazoak dituenen, baina egoera pribilegiatuan gaudenok errazago daukagu eta ez daukagu argudiorik diskriminazio horri eusteko.

Jaietan protesta bakarrik ez, lanketa egiten duzue bestelako festa eredu bultzatzeko, alternatibak eskainiz.

X. Arratibel: Jai batzordeekin aritzen gara eta animaliarik gabeko ekintzak proposatzen ditugu: Oreretan gizon eta emakume probak idi-demaren orde, sukaldaritza ikastaroa, menu beganoa txosnan; Hernanin bola erraldoien entzierroak...

N. Barragués: Jai batzordean sartu eta horren parte izatea da gure helburua, beste kolektiboekin batera aritzea, gure proposamenak eginez. Ongi pasa nahi dugu, jakina, baina modu kontziente batean.

X. Arratibel: Kanpotik iritsi eta animalia erabiltzen duten ekintza bat beste batengatik ordezkatzeko eskatzea baino eraginkorragoa da jai batzordean bat gehiago bezala bertatik bertara aritzea. Hori Hernanin eta Oreretan egin dugu, eta aldaketa oso potenteak ikusi ditugu.

N. Barragués: Bai, lanketa sakonagoa egiteko aukera ematen digulako. Jai batzordetik esaten badigute sokamuturrean animaliak ez duela sufritzen, gu saiatzen gara gure jarrera ikusarazten. Oreretan esaterako, Txosna Komisioak dagoeneko anti-espezista definitzen du bere burua, beste hainbat baloreen artean. Eta horrelako gauzek erakusten digute pixkanaka iristen ari dela gure mezua. Edo adibidez pozgarria da ikustea, atzean talde anti-espezistarik egon

» **NORA BARRAGUÉS:**

“Justizia ez dugu bakarrik eskatu behar gure interesak eta askatasuna zapalduak ikusten ditugunean, guztionak baizik”

» “Ez dakit zein

puntutarraino eska diezaiokedan behartsu bati beganoa izateko, baina egoera pribilegiatuan gaudenok ez daukagu argudiorik diskriminazio horri eusteko”

» **XABIER ARRATIBEL:**

“Kate trofiko mito bat da, gizakiak bere esku daukalako erabakitzea nola elikatuko den, eta zentzu horretan ardura morala dugu inor esplotatu gabeko elikadura hautatzeko”

» “Konpainiarako animalien industriarekin ez dugu bat egiten, baina inork ez duelako nahi txakurtegia hilko den animalia adoptatzea gaizki dago?”

gabe, txosna jakin batek erabaki duela aukera beganoa eskaintzea; jendea kontzientziazten ari den seinale.

Janaria da beste gakoetako bat. Animalista izateko, beganoa izan beharra dago?

N. Barragués: Bai, ezin dudalako behien askatasuna aldarrikatu, behi bat jaten dudan bitartean edo haren esnea hartzen dudan bitartean (behiek ez dutelako esnea beren borondatez ematen). Koherentzia kontua da. Prozesu bat izan daiteke, norberak markatuko du erritmoa, ni urte batzuetan begetarianoa izan nintzen begano bihurtu aurretik, eta animaliak jatea baino hobea da begetariano izatea, baina guretzat azken helburua begano izatea litzateke. Argi diogu, hori bai, ez dela moda edo dieta kontua, diskriminazio baten aurkako jarrerara politikoa baizik.

X. Arratibel: Txikitatik erakusten digute animaliak errespetatzen eta maitatzen, eta aldi berean jan egiten ditugu. Inkoherentea da.

Bideoetan ikusi ohi ditugun haztegi eta hiltegiatako baldintza latzak dira arazoa, gure elikadura-sisteman animaliek jasaten duten esplotazioa, ala animaliak jatea bera?

N. Barragués: Hasierako mezuari eusten diogu: ez da ongizate kontua, ez da animaliak sufritu gabe hiltzea, azken kasu horretan ere gizakiok ari garela erabakitzen animalia hori noiz eta nola hil, gure eskuetan jartzen dugu haren bizitza.

X. Arratibel: Ikuspegi antikapitalistatik, hobea da baserrian ekologikoki hazten den oiloa, haztegi industrialaren alboan, baina ikuspegi etikotik, bururik gabe bukatuko dute bi animaliek; hobeto edo okerrago trataturiko esklaboak dira bata zein bestea, bitartekoak.

N. Barragués: Balio du gure kontzientziak lasaitzeko, “oilo hau sufritu gabe bizi da” pentsatzeko, baina eztabaida beste eremu batean kokatzen dugu guk.

X. Arratibel: Izan ere, animalien esplotazioan ongizatea eta baldintza hobekak bilatzeak azken buruan sendotu egiten du animaliak ondasun diren ideia. Eta gainera urtetako borrokak frogatu du ez duela ezertarako balio: PETA eta antzerako talde handiek izugarritzko lana egin dute animalien baldintzak hobetzeko borrokan, eta ondorioa da gero eta animalia gehiago hiltzen ditugula jateko.



Baten batek esango du elikadura-katearen barruan, animaliek animaliak jatea naturala dela, beste espezieek ere haxe egiten dutela. Katearen gorenean, gizakiok jaun eta jabe bihurtu gara, baina modu jasangarrian animaliak jatea zilegi litzateke?

N. Barragués: Jasangarria izateak ez du esan nahi justua denik.

X. Arratibel: Jasangarri kontzeptuak animalien esplotazioa zuzitzeko balio du, baina animalia hori sentitzen eta sufritzen duen norbanakoa da, eta ongi bizitzeko guk ez daukagu hura jateko inongo beharrik. Kate trofiko mito bat da, gizakiak bere esku daukalako erabakitzea nola elikatuko den, eta zentzu horretan ardura morala dauka inor esplotatu gabeko elikadura hautatzeko.

N. Barragués: Beste animaliek instintuen arabera jokatzeko dute eta guk badaukagu ahalmena gure elikaduraren inguruan kontziente izateko eta inor sufriarazi gabe elikatzeko, beraz, zergatik ez egin horrela?

Ikuskizunez eta elikaduraz gain, animalien erabilera abolitzeko beste bi zutabe nagusiak dira arropa eta animaliekin esperimentatzea. Zer egin dezakegu herriarrok, horri aurre egiteko?

N. Barragués: Jantzi jakin bat larruz eginda baldin badago, hala adieraziko du etiketak, berdin artilearekin eta abar; arreta jarri dezakegu horietan. Bestalde, elkarte animalista handiek zerrenda gaurkotuak atera ohi dituzte, zein produktu eta konpainiatan esperi-

Askekintzaren ustez, protesta guztiak dira positiboak, "jendartea arduratu beharko luketen arazoak mahai gainean jartzeko balio dutelako".

Festetako ekintzetan eragiteko, jai batzordean sartu eta bat gehiago izatea da beren helburua, beste kolektiboekin batera aritzea, aldaketak barrutik proposatuz.

ARGAZKIAK: ASKEKINTZA

mentatzen duten animaliekin, eta horiei muzin egin diezaiekegu. Esperimentazioarena, dena den, gai konplexua da...

Eta instituzioetatik, nola eragin daiteke animalien aldeko borrokan?

N. Barragués: Kontzientziatzea da gure lana eta ez dugu uste gauzak instituzioetatik aldatzen direnik, herria da gauzak aldatzen dituen, eta herritarren eskara eta presioa da instituzioak zerbait egitera bultzatuko dituen. Legearen aurretik kontzientziatzea doa.

X. Arratibel: Donostiako zezenketena da horren adibide garbia. Udaletik alderdi batek kendu zituen, eta Udala txapelaz aldatu zenean, beste alderdi batek berrezarri zituen.

Zezenketak aipatu dituzula-eta, torero bat hiltzen den bakoitzean (Urduñakoa kasu) polemika izaten da, hainbat animalistak dioelako merezita zuela toreroak.

X. Arratibel: Ergelak leku guztietan daude. Ni ez naiz pozten torero bat hil delako.

N. Barragués: Hasteko, jende askok uste duenaren kontra zezenak torero bat hiltzen duenean ez du zezenak ira-

bazten, zezenketaren tradizioak dioelako zezen hori eta bere familia guztia hil egin behar dela, kasta hori zikinduta dagoela argudiatuta. Bestalde, toreroak berak erabaki du zezena hiltzera sartzea, eta erabaki horren ondorioz hil da; zezenak aldiz egin duena da defendatu, bizi egin nahi zuelako.

Etxean animaliak izateaz, zer iritzi duzue?


N. Barragués: Animalien askapena bilatzen dugun heinean, inkoherentea eman dezake etxean animalia domestikatu bat izatea, baina aldi berean, guk erakitako egungo gizartean, gure hiri eta errepideetan, katu bat aske utziko bagenu, gehienetan ez litzateke inguru horretara egokitzeko gai izango, katu hori kondentatzea litzateke nolabait. Zentzu horretan, legitimoa al da norbait askatasun hori guztiz ez ematea, bere bizitza babesteko? Nire ustez bai. Duela gutxi, norbaitek aske utzitako behi batzuk agertu ziren Jaizkibelen, kumeak izan zituztenak. Instituzioek erabaki zuten denak akabatzea.


X. Arratibel: Gai konplexua da. Konpainiarako animalien industriarekin ez dugu bat egiten eta onartezina iruditzen zaigu txakur bat bortxatzea txakurkume politak izan ditzan, gero horiek saltzeko, baina inork ez duelako nahi txakurtegia hilko den animalia adoptatzea gaizki dago? Sufritzen ari den norbanako horri beste bizitza bat ematea da, eta horregatik interesgarriena litzateke adoptatzea inork nahi ez duen txakurra (zaharra delako, hanka bat falta duelako...). ■

HISTORIA

'ASKATASUNAREN IBILALDIA'

HERRI BAT MARTXAN





1977ko udan askatasun aldarria Euskal Herriko lau bazterretara hedatu zuen martxa erraldoi batek. "Amnistia osoa" eskatzen zuten: presoak kaleratzea ez ezik, gatazka politikoa benetan konpontzeko baldintzak sortu nahi zituzten. Horretarako baina, aurreko errejimenak jarritako kateak apurtzea zen bide bakarra askorentzat.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

ARGAZKIAK: ARGIA ARTXIBOA

1977ko uztailaren 10ean Euskal Herrian inoiz izandako mobilizazio handienetako bati ekin zioten herritarrek. Agurain, Lodosa, Gernika eta Zarautzik zutabe bana abiatu zen Askatasunaren Ibilaldia deiturikoan eta Iruñea ondoko Arazuriko zelaietan amaitu zuten, milaka lagun bildu zituen bilkurarekin. Frankismoaren atzaparretatik atera nahian zebilen euskal jendarteak oinarritzeko hainbat aldarrikapen zuen: amnistia osoa, autonomia estatutua, indar errepresiboak desagitea eta euskal nazio identitatearen onarpena.

Franco hilez geroztik indultuak eta amnistia partzialak egon ziren arren, oraindik preso politiko asko zegoen kartzelan “terrorismo” delituekin. Hala, “amnistia osoaren” eskaerak intentsitate ez ohikoa hartu zuen udaberri hartan: jada ez zen soilik preso eta errefuxiatu guztiak etxean izateko leloa, halako gehiago ez izateko beharra ere bazegoen atzean, eta horretarako egiazko demokrazia baten oinarriak nahi ziren, ez Francoren diktadura zuritzeko erreforma politiko bat.

Herrietan sortu berri ziren amnistia-aren aldeko batzordeek aldarrikapen asteak antolatu zituzten eta protesta oso bortitza izan ziren. Bereziki odoltsua izan zen maiatzeko antolatutakoa: poliziek balaz eraso zituzten herritarrek, eta Errenterian adibidez, errepresio indiskriminatua eta arpilatzeak nagusitu ziren. Egun gutxiren buruan zazpi lagun hil zituzten Estatuaren funtzionario armatuak; inor ez zuten zigortu. Inpunitatea erabatekoa zen garai horietan eta *inkontrolatuak* ere euren kasa ibiltzen ziren auzo eta herrietan.

Giro biolento horren erdian –ETAren adar desberdinek ere erasoak areagotu zituzten–, Europa eta munduaren aurrean euskaldunen batasuna eta indarra irudikatuko zuen mobilizazio bake-tsu baten asmoa iradoki zuen Telesforo Monzon buruzagi abertzaleak uztaila hasieran; Mahatma Gandhiren *Gatzaren marxa*, edo hori baino askoz hurbilago, aurreko urtean Katalunian egin zen *Marxa de la Llibertat* izan zituzten inpirazio iturri, besteak beste.

Ekimenak alderdi ugariaren babesa izan zuen (ORT, EIA, LKI, LAIA, PCE...), horietako zenbait oraindik legalizatu gabe, baita auzo elkarte eta beste talde askorena ere. PSOEak eta EAJk aldiz ez zuten begi onez ikusi, azkeneko honen ustetan “desegokia” zelako une ho-

rietan. Ez ziren hiru hilabete ere igaro Xibertan indar abertzaleen arteko elkarriketek –horiek ere Monzonek sustaturik– porrot egin zutela eta ekainean egindako Espainiako lehen hauteskundeek garbi utzi zituzten batzuen eta besteen arteko diferentziak: KAS inguruko sektore zabal batek abstentziora jo zuen, amnistiarik eta eskubide demokratikorik ez zegoelako, jeltzaleek osteratzen bai ala bai parte hartu nahi zuten estatu egitura berrietan.

Nolanahi ere, martxak sekulako jendetza bildu zuen igaro zen herrietan eta hein batean lortu zuen transbertsalitate hori, EAJko jarraitzaile ugari ere bat egin baitzuten harekin. Gasteizen, adibidez 20.000 lagun elkartu zituen ibilaldiak Andra Mari Zuriaren plazan: “Ikurrinak, Catalunyako banderak eta Polisarioarena dabilta jendearen artean. *Apalaren* aldeko pankarta bat ere bai kolumna batetan...”, dio *Zeruko Argiaren* orduko kronikak.

Atzerriratuen itzulera

Miguel Angel Apalategi atxilotu eta epaitzeko zorian zen Frantziako Gobernuak, Espainiakoarekin tratuan, eta gose greban jarri zen. Aurrekari arriskutsuak sekulako protesta oldea sorrarazi zuen: sinadura bilketa, manifestazioak... Askatasunaren Ibilaldian ere oihartzun berezia izan zuen bere kasuak.

Beste momentu hunkigarri bat Durangon gertatu zen: Belgikan atzerrituta zeuden ETAko hamar lagun (Mario

Onaindia, Jokin Gorostidi, Xabier Larena...) jendaurrean agertu ziren, etxera itzuli zirela esateko. Haiekin batera igaro zuen Bidasoa Telesforo Monzonek ere; bergararra ibilaldiaren bultzatzaile nagusietakoa izan zen, “Maltzagaraino elkarrekin” adierari fidel. Orain bezala orduan ere, ordean, leizea handiegia zen hausturaren eta erreformaren artean edo... aldeakartasunaren eta aldebiotasunaren artean.

Ibilaldian zehar aldarrikapenerako abaguneak, ekitaldiak eta omenaldiak etengabeak izan ziren. Esaterako, zenbait tokitan martxan ari zirenak gose greban jarri ziren *Apalarekin* elkartasunez; Lekeition 16.000 lagunek minutu bateko isilunea egin zuten bost urte lehenago Guardia Zibilak hildako Benito Mujika *Xenki* eta Mikel Martinez de Murgia *Mikelon* ETAko militanteen omenez; Baionan Justizia Jauregiaren aurrean elkarretaratzea, epaiketa politiko bat hastar zelako...

Trabak eta debekuak ere izan zituen martxak –Ipar Euskal Herrian kasu–, eta beste batzuetan “probokatzailen” erasoak jasan zituzten. Abuztuaren 28an iritsi ziren zutabeak bat eginda Arazurira; hasiera batean azken ekitaldia Iruñean egitekoa ziren, baina Gobernadore Zibilak debekatu egin zuen. 500 autobus pleitatu zituzten Ororbiako zelaietaraino, eta ARGIAko kronikariaren esanetan 300.000 lagun mugiarazi zituen ekimenak, haietako asko ezin iritsirik geratu ziren arren Espainiako Polizia Armatu edo *grisen* oztopoengatik.

Ekitaldiaren amaieran polizien karga eta istiluak izan ziren, hurrengo garaietan etorriko zenaren iragarle: urriaren 15ean Espainiako Gobernuak Amnistia Legea onartu zuen, baina laster bete ziren kartzelak berriz ere preso politiko.

Askatasunaren Ibilaldia mezu garbi batekin abiatuagatik, aldarrikapen sutsuagoen katalizatzaile ere izan zen, independentziaren eta borroka armatuaren aldekoak, esaterako. Kapital humano hori oso garrantzitsua izan zen hortik gutxira “Altsasuko Mahaia” osatu eta ezker abertzalea egituratzen hasteko. Eta zer irakasgai ateratu zuen EAJk?

» Askatasunaren Ibilaldia mezu garbi batekin abiatu zen arren, aldarrikapen sutsuagoen katalizatzaile ere izan zen. Kapital humano hori oso garrantzitsua izan zen hortik gutxira “Altsasuko Mahaia” osatu eta ezker abertzalea egituratzen hasteko. Eta zer irakasgai ateratu zuen EAJk?



Goitik behera, ezker-eskuin: Askatasunaren Ibilaldiko partaideak Izaban atsedean hartzen. 'Martxoak 3' zutabea Aguraindik irten zen unea; 492 kilometro egin zituzten. Telesforo Monzon Ororbiako zelaietan eserita, atzean jendetza duela; bergararra burubelarri aritu zen martxaren sustapenean eta berak egin zuen ereserkia. Zutabeetako batean pankarta eta lelo ugari; antolakuntzaren kontsignetatik haragokoez ekarri zuten eztabaidarik. 'Eusko Gudariak' abesten Arazurin, ibilaldiaren amaieran: "Herriak deiari inoiz ez bezala erantzun zion, baina herri hori nahiko frustratua ere geratu zen", zioen ARGIAk lekuaren desegokitasuna eta eguraldiaren eta Poliziaren trabak aipatzean.

» ARGIAren argazki artxibo historikotik duela 40 urteko irudi gehiago berreskuratu ditugu. Horiek ikusteko eskaneatu ondorengo QR kodea.



Antzin

EREMU MISTOA ETA D EREDUA, ERRALDOI PAUSOAK OFIZIALTASUNERANTZ

Nafarroako eremu ez-euskaldunetik mistora igarotzea eta herriko eskolan D eredua sartzea lortu dute Antzingo herritarrek. Ofizialtasuna dute helburu, baina emandako urratsekin euskaraz bizitzen uzten ez dieten mugak apurtzea espero dute. Aldaketak nola hezurmamituko dituzten azaldu digute.



Ane Eslava Serrano

@eslavaane

ARGAZKIAK: ANTZINGO ESKOLAK UTZIAK

Nafarroako Gobernuak oniritzia eman berri du eremu ez-euskalduneko 44 herritako 39.000 nafar eremu mistora igarotzeko. Horien artean Antzin herriko 362 bizilagunak daude. Laura Etxeberria udaleko zinegotziak azaldu duenez, iazko abenduan Euskararen Legearekin bat ez zetozen hainbat herri eztabaizatzen hasi ziren eta eremu mistoan sartzeko mozioa “aldarrikapen gisa” aurkezte erabaki zuten, ofizialtasuna baitute jomuga.

Eremu aldaketaren bitartez euskara normalizatzea eta herrian barneratzea helburu dutela azaldu du Etxeberriak. Udaleko langileek euskara jakitea eta biztanleentzako oharrak bi hizkuntzetan egitea ezinbestekotzat jo du. Legeak, baina, ez du horretarako beharra jasotzen. Administrazioarengana euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen die eremu mistoko biztanleei; ez, ordea, euskaraz arreta jasotzekoa. Pauso garrantzitsuenak, beraz, udalaren esku gelditzen dira. Eremu aldaketak urrats horiek bultzatuko dituela eta euskarari berme instituzionala emango diola uste du zinegotziak: “Orain arte egindako lana martxan jartzeko palanka izango da”.

Herrian harrera ona izan du ekimenak. Udalbatzako talde guztiak bat etorri

dira proposamenarekin eta biztanleen babesa jaso dute. Egon badaude, ordea, kontrako iritziak: kalean Udalaren aurkako esku-orriak agertu dira hainbat egunetan. Hori alde batera utzi eta herritarren esker oneko hitzekin geratzea nahiago du zinegotziak, eta euskarak herrian duen babesaren erakusle aipatu du aurtengo Korrika Antzinetik pasa zela eta harrera “ikaragarria” izan zuela.

D eredua, bultzada euskarari eta herriari

Eremu aldaketa ez da nobedade bakarra Antzinen: datorren ikasturtean D eredua ezarriko dute herriko landa-eskolan. Hogeitahurrek osatzen dute zentroa, familia gehienek Lizarrako ikastetxe publikora eramaten dituztelako seme-alabak. Arrazoi horregatik, hain zuzen, ondoko herri bateko landa-eskola itxi behar izan zuten 2012an, ikasle nahikorik ez zegoelako. Antzinen, mehatxua ikusita, Udala eta eskola lanean jarri ziren, uste zutelako ikastetxearen itxiera “kaltegarria eta tristea” izango litzatekeela herriarentzat. Familia guztiengana jo zuten, landa-eskolan geratzeko zer behar zuten galdetzeraz, eta erantzun zuten D eredua, jantokia eta garraio zerbitzua nahi zituztela.

Eskolan D eredua sartzeko eskaera egin zioten Nafarroako Gobernuari, eta hasieran ezezkoa jaso zuten, haur kopurua txiekiegia zelako, baina ekinaren ekinez lortu dute: 2017-2018 ikasturtean eremuko ikastetxe bihurtuko da, zortzi haur egongo dira D ereduan, hamabi A ereduan eta bakararra G ereduan, eta garraio eta jantoki zerbitzuak ezarriko dituzte.

“Oso positiboa izan da Antzin eta ondoko herrirentzako, zentroaren itxiera ekidingo dugulako, euskara indartuko dugulako eta inguruko biztanleei erosotasuna emango diegulako”, adierazi du Koldo Solchaga Antzingo eskolako zuzendariak.

Izaskun Pina eta Nuria Txasko Antzin ondoko bi herritakoak dira, Otiñano eta Mirafuentesekoak, eta datorren ikasturtean Antzingo eskolara eramango dituzte seme-alabak, euskaraz ikastera. Orain arte zuten aukera bakarra Lizarrara joatea zen eta horretarako ordubeteko bidaia egin behar zuten hurrek egunero. Berrikuntzak emango dien erosotasuna eskertu dute: “Oso albiste ona izan da seme-alabak landa-eskola txiki batera eramane ahal izatea, gainera etxetik gertu. Triste delako haur txikiak goizero autobusean uztea, makro-ikastetxe batera joateko”, adierazi du Txaskok.



Argazkian Antzingo eskolako haurrak. 2017-2018 ikasturtean zortzi haur egongo dira D ereduan, hamabi A ereduan eta bat G ereduan. Ondoko argazkian antzindarrak Korrika herritik igaro zen egunean.

D eredua sartzeko prozesua abiatu zutenean hainbat zalantza sortu zitzaizkien zentroan, horietako bat zen irakasleekin zer gertatuko zen. Koldo Solchaga zuzendariak azaldu duenez, haiek argi ikusi zuten hasieratik: “Eskola aurrera ateratzeko gu joan behar baginen, ez ginen oztopo izango. D ereduaren aldeko apustua egin genuen eta gure lanpostua uzteko prest geunden”. Azkenean, orain arte zeuden irakasleak geratuko dira eta beste bi sartuko dira, D ereduaren ardur hartzeko. Ikastetxea txikia izateak eta herrian ikastolarik ez egoteak prozesua erraztu du.

Eremu aldaketa eta D eredua, batera baina independenteak

Antzingo eremu aldaketa eta eskolako lerro berria “eskutik helduta” etorri direla azaldu dute Etxeberriak eta Solchagak. Legeak, ordea, ez ditu gauza biak batera jasotzen. 2015ean Nafarroako Legebiltzarrak Euskararen Legea erreformatu zuen, eta harrezkero eskaria dagoen herri guztietan D eredua ezartzeko aukera dago, eremu ez-euskaldunekoak izan arren, betiere zortzi haur baino gehiago daudenean.

Ekimen batek bestea bultzatu duela azaldu du Solchagak: “Udalak pauso

JOSU REPARAZ: “D EREDUA ZABALTZEAK 1+1=2 EGITEA LORTZEN BADUGU, ZORIONEKOA ALDAKETA”

Antzinen ez bezala, D eredua sartu duten hainbat herritan ikastolak daude; Lizarran, Tafallan eta Lodosan, kasu. Lizarran adibidez, lerro publikoa eta pribatua bizikide dira, ikasleria-masak horretarako aukera ematen duelako. Beste batzuetan, berriz, bi ereduak mantentzeko adina haurrik ez dago. Lodosan, esaterako, ikastola euskararen biziraupenerako gune garrantzitsua izan da urteetan eta orain kolokan geratu da.

Josu Reparaz Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendariaren ustetan, toki horietan bi ereduak kalteturik atera daitezke eta euskalduntzeari mesede gutxi egin: “Lerro publiko indartsu bat sortu izan ba-

genu, ikasle berriak erakarri eta bi ereduak 1+1 egin, ongi legoke, baina horren ordez 1-1=0 gertatzearen beldur gara”, adierazi du. Gobernuaren babesari lotutako kezka ere azaldu du: “Lerro publiko ahula ezarri arren, aitzakia nahikoa izan daiteke ikastolei diru-laguntzak kentzeko. Gainera, egun Nafarroan dagoen gobernuak D eredua babesteak ez du bermatzen etorkizunean hala izango denik”.

Eredu aniztasuna aberasgarria dela sinesten du NIEko zuzendariak, baina formula berriak bilatzeko beharra ikusten du: “Indarrak batu behar ditugu, ez bereizi. D ereduaren zabalkundearekin 1+1=2 egitea lortzen badugu, zorionekoa aldaketa”.

biak eman nahi zituen eta babes handia eman digu eskolan euskara sartzeko”. Etxeberriaren iritziz, D eredua eskaintzen hastea euskararen arloan lortu duten urrats garrantzitsuena izan da. Bere hitzetan, Antzinen izandako lor-

penek erakutsi dute Nafarroako biztanleek euskaraz bizi nahi dutela eta horretarako baldintzak eskaini ahal direla: “Hemen lortutakoarekin argi geratu da zonifikazioak ez duela zentzurik”. ■

Aio zurina, aio!



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Ez dakit nola harritzen garen! Gezurra dirudi; mendeak joan eta urteak etorri eta badakiguna berretsi besterik egiten ez badigu ere, eguraldi gogaikarriak pe-traltzen gaitu. Zera dio, behin eta berriz: hemen beroa eta hezetasuna elkarrekin bizi izaten dira. Horrek harrotzen ditu onddoak eta haien alaba diren gaitzak.

Onddoek sortutako gaitzak sufrea-ekin eta kobreakin tratatzen ditugu. Bi gai horiek naturalak edo sintetikoak izan daitezke. Naturalak harri natural batetik erauzitakoak dira. Sintetikoak industria kimiko batean sortutakoak. Tratamenduak egindakoa gai horiek azkenean lurrera doaz. Sufrea, inorganikoa izateagatik hor nonbait. Kobrea, ordea, metal astuna da, eta nora joan han pilatu. Neurririk gabe emanez gero, kutsadura areagotzen da. Tamainan erabilita ere nahikoa lan badu. Azken beltzean landareak, lurrak, urak eta gu geu kutsatuko gara. Biak, sufre eta kobrea, ahalik eta gutxien erabili behar dira.



Zurinak jotako landarea.

POLINATOR-CC BY SA

Ez dago aukera handirik gaitzei aurre egiteko. Aurrea hartzea da eraginkorrena, bi aieketan lan eginda: landare aldaera sendoak eta gaitzak jasateko gai direnak aukeratzea eta, bestetik, onddoak harrotzen dituen hezetasunari buru egitea.

Panorama honekin jende asko ari da, han eta hemen, landareen osasungintzan. Onddoak kemengabetzen dituzten fungizida aukera mordoa dago dagoeneko frogatua: esnekiak, errautsak, propolioa, bikarbonatoak, ur oxigenatua... Denek lan bertsua egiten dute: landa-

rearen azala lehortu eta zaildu. Horiez gain silize ugari duten landareen urak ere baliatzen dira: azeribuztanarena eta asunarena. Lehenak gaitzari aurre egiteko indartzen du landarea. Bigarrenak, nahiz eta gaitzak jo izan, buelta eman eta suspertzen.

Duela gutxi jakin dut oidioari edo zurinari aurre egiteko beste erremedio interesgarri baten berri: *Quercus* generoko landareen kuku-sagarra. Lehor-lehor dagoenean eho, eta hautsa zabaldu landarearen gainean. Aio zurina, aio! ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Ardiak dauzkat, eta landetan ez zait asunik egiten baina bazterretan asko egiten zait, nire iritzian ardien korotzek eta txizek dakarte hori, zer egin nezake asunok galarazteko? Gainera, ardiak dabilzan landetan "asto patana" (menda) egiten da, zer egin daiteke galtzeko?
Jon Rekalde (Usansolo)



Kaixo Jon. Ardiak eta aziendak ibiltzen diren tokietan, bide, landa, larre eta abarretan ohikoa da asuna bezala batana edo menda azaltzea. Zeuk ondo esaten duzun bezala aziendaren gorotza eta txizen ondorio da. Hondakin horiek nitrogeno asko dute eta pilatzen den tokietan erruz etortzen dira, indarrean, bi landare horiek.

Galtzeko azienda kendu beharko litzateke, baina hori zaila izaten denez landareak

moztu eta moztu beste aukerarik ez duzu. Biek lurpean sustrai sendoak dituzte eta horiek hustu behar dira. Moztu eta moztu, indarra kendu eta pixkanaka akabatzeke. Mozteko lan hori, kalte handiena egiteko ilgora denean egin.



WWW.BARATZEPARKEA.EKOGUNEA.EUS

Baratze sozialak Beasainen



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

60 baratze berri izanen dituzte Beasainen irailetik aurrera. Beasaingo Udalak Ekogunearekin eta Caritasekin lan-kidetzan abiatu du proiektua, eta Laia kooperatibaren bidez ari dira martxan jartzen. Udalei ingurumen zerbitzuak eskaintzen dizkie Laia kooperatibak: auzo konposta edo aldaketa klimatikoaren inguruko gaiak lantzen dituzte hainbat herritako udalekin. Baratze proiektu bat martxan jartzen duten lehen aldia da Beasaingoa, ordea.

Izaera soziala

“Batik bat Udala izan da baratzeen proiektuari izaera soziala ematea bultzatu duena”, azaldu digu Rosa Aurkia Laiaiko kideak: “Baratzeak herri askotan daude, baina Udalak behar berezia duen jendeari eman nahi zion lurra lantzen hasteko aukera”. Ongizate sailarekin batera bideratuko dute behar gehien dute-nentzako baratzeen banaketa.

60 baratzeen esleipena egiterakoan beste bi talde ere izan dituzte kontuan: batetik, herriko elkarte eta ikastetxeentzako bideratu dira baratze batzuk, horien artean dago Caritas. Bestetik,

zenbait baratze herritarren artean banatzeko bideratu dira; edonork egin zezakeen eskaera.

Baratze txikiak eta ekologikoak

Baratzea lantzeko bi baldintza jarri dituzte: autokontsumorako baratze txikiak izanen dira, ezingo dituzte saldu bertatik ateratako produktuak, eta ekologikoan ekoiztu beharko dute.

Ekogunea Fundazioaren baratze parkeen sareko kide izango dira Beasaingo baratze publikoak, eta beren laguntza izanen dute parte hartzaileek baratzeak martxan jartzeko. “Ekogunearen laguntzarekin baratzezainen elkarteak sortuko da. Elkarrekin eramanen du baratzeen kudeaketa, baita Udalararekin eta Ekogunearekin harremanak ere”, kontatu digu Aurkia. Ardurak ere eskatuko zaizkie parte hartzaileei, lurra lantzearen truk.

Ekainaren 30a arte izan zuten beasaindarrek baratzeak eskatzeko aukera. Obrak uztailan hasiko dira, eta bultzatzaileek espero dute irailean jada, aitzurrak eskuan, Beasaingo baratzeetako lurra lantzen hasteko aukera izatea. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Uztailak 5: Guardia “Ardoaren munduan etorkizun iraunkorra” ikastaroa

EHUko Uda Ikastaroen barruan,
Villa Lucia hotelean.

Uztailak 5: Bilbo “Basquegur” eguna

17:30ean, Bilboko Itsasadarra
Itsas Museoa.

Uztailak 7: Usurbil “Mahastizaintza ekologikoa” ikastaroa

9:00etan, Potxoenea Kultur Etxean.

Uztailak 7: Irun Lastaola baserrira bisita gidatua

Esnebehiak ikusteko aukera.
11:00etan, baserrian bertan.

Uztailak 8: Zestoa Beorren hezibide naturala

Vanesa Ugarterekin. Zaldiko proiektua.
Informazioa: 655 71 42 63 edo zaldiko@zaldikodomanatural.com.

Uztailak 8: Bastida Erdi Aroko azoka

Eskulangintza objektuak eskuratzeko eta
gastronomia dastatzeko aukera egun
osoan zehar.

Uztailak 8: Añana Gatzaren Artisanu Azoka

Gatz produktuen erakusketa eta
salmenta, eta argi eta soinu ikuskizuna.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera
idatzi edo www.bizibaratzea.eus
webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

"BEDUINO BAT KARIBE ALDEAN" LIBURUA

2

Beduino baten bizitzako pasarteetan barrena

Erroa argitaletxeak 2015ean eman zion hasiera "Herrien min-tzoa" bildumari, eta lehendabiziko titulua "Beduino bat Karibe aldean" izan zen. Mendebaldeko Saharan sortutako Ali Salem Iselmu saharar idazleak, prosa poetiko aberatsarekin bere txikitako oroitzapenak kontatzen ditu bertan, erbeste-terako ihesaldia, Tindufeko kanpamenduen sorrera, Kuban ikasle emandako urteak eta helduaroan Espainiako estatuan emandakoak ere bai. Bildumako guztiek bezala, pieza literarioa Mendebaldeko Sahararen gatazkan kokatzen duen Jabi Zabala ARGIAko kolaboratzaileak idatzitako hitzaurreak laguntzen du.



NAGORE IRAOLA

Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ERROA ARGITALETXEA

Done Bikendi 2, 4. solairua
48001 Bilbo
Tel.: (+34) 94 423 75 91

#literatura
#sorkuntza
#herrien-mundua

Uztaileko sariak

1



**Siroka taldearen
"Ura" diskoa**
5 disko

2



**"Beduino bat Karibe aldean"
liburua**
4 ale

3



**Bilboko Kafe Antzokirako
sarrerak**
Bi pertsonarentzako bina sarrera

4



**Ekologistak Martxan
"Energia Trantsizioak" liburua**
3 ale

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

AKTUALITATEAREN GAKOAK

Udan astekaririk ez baina...



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Abuztua gainean da. Oporrak. Eguraldi ona. Urte osoan zehar apaletan udarako aparkatutako irakurketa guztiak hartu eta lasai lasai leitzeko beta izaten dugun sasoia. Bakoitzak bere txokoa: be-saulkian, toalla gainean, tabernako terrazan... Urteak daramatza ARGIAk aldizkarian garai honetarako liburu gomendioak egiten, baina aurten beste irakurketa bat proposatzeko asmoa dugu: *Gakoak*.

Normalean baino ia urte erdi lehenago dator aurtengoan urtekariaren hariari segika sortutako *Aktualitatearen Gakoak* liburuxka. Garai batean, pasatako urteari ikuspegi kronologikotik begiratutako bilduma banatzen zen urtarrilean, azken hamabi hilabeteetan gertatutakoak gorde eta edozein unetan kontsultatzeko liburua. Baina orain zer zentzu du horrek Internetekin?

Salto bat eman zen 2016ko urtarrilean. Geroztik, kontsultarako bilduma bat baino, iragan urtean agenda markatu duten gaien inguruko analisiak eta kronikak biltzen dira, astekaria irekitzen duten Panoramako argazkietatik sei esanguratsuenak aukeratzen dira, 'ARGIAko onenak' atalean *Larrunen*, aldizkarian, blogetan edo sarean zintzilikatu diren hainbat erreportaje, elkarrizketa edo artikulua biltzen dira, eta aurrera begirako aurreikuspenak jasotzen dira 'Joerak' atalean. Irudiek garrantzi handia hartzen dute formatu berrian, eta azala Josevisky marrazkilariaren esku geratzen da, barruko beste zenbait irudi bezala.



Urtarriletik abuzturako saltoa

Kronologiak eta kontsultarako bilduma izateak garrantzia handiagoa zutenean, agian logika gehiago zuen urtarrilean banatzeak. Urtekariaren izenean. Baina formatua aldatuta, gaur egun abiadura bizian doan aktualitateari patxadaz begiratzeko tartea hartzeko ez al da hobe abuztua? Gainera, lau aste horietan ez da astekaririk izaten, eta ARGIAren fanatikoentzat monoa pasatzeko meta-dona funtzioa ere bete dezake.

Total, errealitatea irakurtzea maite duzuenontzat, hemen eskaintza. Hori bai, ez pentsa datorren urtarrilean beste *Gakoak* bat iritsiko zaizuenik postontzira. Dosifikatu indarrak, 2018ko abuztura arte berririk ez da izango eta. ■

Sarean arrantzatutak

ELA sindikatua

@ELAsindikatu

[EHUren udako ikastaroetan]

@AHTzuloan aipatu du

@MikelNoval.ek, @mrafundazioa

eta @argia.ren arteko

kolaborazioaren fruitu.



Jarraitu ARGIA n Via Campesinaren VII. Nazioarteko Biltzarra

Via Campesina nekazarien nazioarteko mugimenduak Euskal Herrian egingo du VII. Nazioarteko Biltzarra. Uztailaren 16tik 24ra, bertako ekitaldi eta eztabaiden kronikak irakurri eta parte hartzaileen iritzia jaso ahal izango dituzu argia.eus-en. Gainera, biltzarraren gako nagusiak azaltzen dituen erreportajea kale-ratuko dugu uztailaren 16ko astekarian. Derioko apaiztegian bilduko diren mundu osoko 500 ordezkariak nekazari txikien gaur egungo arazoez eta erronkez jardungo dute, eta datozen lau urteetan elikadura burujabetzaren bidean aurrera egiteko estrategiak erabakiko dituzte.



ORBEA, ALTZAIRUAREN MALGUTASUNA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Eibar, 1840. Juan Manuel, Mateo, Casimiro eta Petra Orbea Murua neba-arrebek errebolberrak eta pistolak egiteko Orbea Hermanos lantegia sortu zuten. Hamarkada bakarrean armaginen herriko enpresarik handiena izatea lortu zuen eta, mendea amaitu baino lehen, 1890ean, fabrika elektrifikatzea erabaki zuten. Horretarako zentral hidroelektriko txiki bat eraiki zuten, eta negozioa egokitzeke eta dibertsifikatzeko inolako arazorik ez zutela erakutsi zuten: zentraleko energia soberakina saltzen hasi ziren, suzko arma laburrez gain.

1895ean hil zen lau neba-arrebetan azkena. Enpresak 50 langile zituen orduan; 1906an, aldiz, 400dik gora (eta hiru zentral hidroelektriko). Baina marka guztiak Lehen Mundu Gerrarekin hautsi zituzten: 1916. urtean soilik 725.183 arma esportatu zituen Orbeak.

Jakina, Gerra Handiarekin batera amaitu zen armagileen pagotxa. Hala, pixkanaka, Orbeak gero eta arma gutxiago ekoiztu zituen. Makina-erremintaren esparruan sartzen hasi ziren, tornuak, fresatzaileak edo zulatzeko makinak eginenez. Baina, hasieratik Orbea altzairuzko hodiak egitegailendu zen, eta bide horretan hasi zen haur kotxeak, gurpildun aulkiak eta, batez ere, bizikletak egiten.

1940ko hamarkadan enpresak 1.000 langile zeuzkan eta urtean 50.000 bizi-



SANTIAGO GARCIA SANCHEZ

1884ko Orbea errebolberrak, "Ona" sistema erabiltzen zuena eta hamaika milimetroko kalibrekoa, hamar urte lehenagoko Smith & Wesson modeloa oinarritua. Besteak beste Espainiako Guardia Zibilararen arauzko arma izan zen 1924. urtean erretiratu zuten arte.

kleta ekoizten zituen. Eta ez zen metalizko egiturara mugatzen, txirringen ia osagai guztiak bertan egiten baitziren.

Hogei urteko egonkortasuna ekarri zuen ildo berriak, baina 1960ko hamarkadan gizartearen motorizazioak eskaera nabarmen jaistea eragin zuen. Horretara ere egokitzeke ahalegina aurrez egin zuen Orbeak, hamar urte lehenago Frantziatik zetorren Velosolex sistemaren bidez motordun bizikletak ekoiztu baitzituen. Baina ez zen nahikoa izan. 1969an ordainketa-etendura iri-

tsi zen eta enpresa ixtekotan egon zen. Orduan, Esteban Orbeak 1.500 langileei utzi zien marka, eta haiek kooperatiba sortu zuten. Leihaketarako bizikletetan espezializatuta, berriro ere lehiakor izatea lortu zuten.

Denboraz, txirringetako altzairua aluminio, karbono... bihurtuko zen. Eta, azkenik, urre. 2008ko Joko Olinpikoetan, Samuel Sanchezek errepidean eta Julien Absalonek BTn metal horretako domina bana irabazi baitzuten Orbea bizikleten gainean. ■



ITALIAKO KULTURA MINISTERIOA

Suak ondarea babesten duenean

Erromako metroko C linea zabaltzeko lanetan, Trajanoren garaiko (K.o. II. mendeko) eraikin baten arrastoak topatu dituzte. Mosaiko eta fresko zati ederrak topatu arren, aurkikuntza berezienak egurrezko egiturak izan dira: hainbat habe, aulki baten hankak, balaustrada zati bat eta mahai errektangularrak handi bat.

Oiasson, adibidez, buztinak egurrezko egiturak babestu zituen eta gugana oso egoera onean iritsi dira. Baina Inperioaren hiriburuan ez da orain arte halakorik aurkitu. Pompeia eta Herkulano sumendi batek suntsitu zituen; Erromako eraikin hau, sute batek. Suak egurra ikaztu eta horregatik aurkitu dira egitura horiek hain egoera onean. ■



TABAKALERA

DEBORAH STRATMAN

“Editatze-gelan egiten da zinema”



Lur Olaizola



Victor Iriarte

Deborah Stratman (Washington, AEB, 1967) zientziaren bidez iritsi zen zinera. Fisika ikasteari utzi zion, bukatutakoan industria militararentzat lan egin beharko zuelakoan eta Arte Eskolan zinearekin egin zuen topo. Gustatzen zitzaion guztia zeukan zineak: optika, erlatibitatea eta mekanika; teknologiarekin erlazioa, bai eta Tarkovskyyk deskribatutako “denbora zizelkatzeko” aukera ere. Ekainaren 17an Tabakaleran izan zen Deborah Stratman berari eskainitako fokua saio bat aurkezteko. Zineari eta politikari buruz hitz egin genuen, bai eta soinuaren bidez mundua asmatzeko erari buruz ere.

Zientziatik zinera pasa zinenean zein zen zineari buruz zeneukan ideia?

Zine experimentalak ikusi nuen lehen aldiz hogeit bat urte nituen. Une horretan aurkitu nuen benetan hitz egiten zidan zine bat. Eta orduan ulertu nuen badaudela denbora erabiltzeko beste era batzuk. Ez dute zertan era erradikalagoak izan, baina badira literariotik urrun dauden erak. Nire pelikula ere hasieratik izan dira horrelakoak. Egin nuen lehenengoetariko bat dut gogoan: jendea filmatu nuen ilea moztzen zioten bitartean eta gero nik moztu nuen filma ile mozketa bat egingo banio bezala (barreak).

Nire lehenengo zine irakasleetako bat Peter Kubelka izan zen eta dudarik gabe kutsatu egin ninduen. Haren bitartez izan nuen nire lehen esperientzia denbora eta soinuarekin. Haren bitartez iritsi zitzaidan mozketa-idea. Astero elkartzan ginen bere mintegian eta berak *Unsere Afrikareise* jartzen zigun. Elkartzen ginen bakoitzean pelikula hori ikusten genuen. Besterik ez. Harrigarria zen. Zirrara sakona sortu zidan.

Zure filmografian nabari da lehen lan formalago hauetatik lan politikoagoetara eman duzun pausoa. Nola bilatzen duzu forma eta edukiaren arteko oreka?

Nire kasuan forma kontzeptu batetik ateratzen dela uste dut, bai eta aurreko forma bati aurka egitetik ere. Adibidez, *Illinois parables*, egin dudana azken filma bukatutakoan, ez nuen hasi nahi berriro beste pelikula erabat historikoa eta erabat neurtua egiten. Horren aurka egin nahi nuen. Gutxi erabili ditudan edo ezohikoak diren estiloak lantzea gustatzen zait beti.

Baina ez da galdera erraza, eta aldi berean, hori da funtsezko galdera. Orokorrean, zinemagile gisa ikusleek zine esperientzia bat izan dezaten nahi duzu eta pelikula ikusten ari direla senti dezaten ideia hori ezin zela beste era batean adierazi. Adibidez, Otolith Group. Ikaragarri gustatzen zaizkit eta oso onak direla uste dut, baina batzuetan beren pelikulak ikusten ditudanean, ideiak eta proposamenak bikainak iruditzen zaizkit baina iruditzen zait zinea galtzen ateratzen dela. Agian zinea ez da ideia horiek adierazteko formarik onena. Eta hori da helburua, ezta? Idazketaren bidez, argazki saiakera baten bidez edo bakarrik baten bidez ezi-

nezkoa litzatekeen zerbait ikusgai egitea zinearen bidez.

Ikusleen esperientziarekin lotuta, zure pelikulek ulermen maila ezberdinak onartzen dituzte. *Hacked Circuit*-en, adibidez, foley estudio bat ikusiko dugu eta foley artista bat *The Conversation* (Coppola, 1974) filmaren eszena bati soinua jartzen. Pelikulako pertsonaia bere etxean ezkutatuta dauden mikrofono batzuen bila ari da. Pelikularen abiapuntuan Edward Snowden eta AEBetako NSA agintziaren espioitza kasuak zeuden, baina hori jakin gabe ere, pelikulak erabat funtzionatzen du. Ikusleak eta pelikularen harrera kontuan hartzen dituzu film bat egiten ari zarenean?

Etorkizunean pelikula batek izango duen harrerak ez du inoiz ere baldintzatzen nire lana egiteko era, baina garbi daukat oso zaila dela, erronka bat dela pelikula jende guztiarentzat egitea, eta aldi berean, erradikala eta konplexua izatea. *Hacked Circuit*-en kasuan, esate baterako, erretratu pelikula bat dela esan genezake, edo agian, foley artista bat lanean inoiz ikusi ez baduzu, foley artea ezagutu dezakezu. Maila horretan konekta dezakezu pelikularekin. Edo, agian, koreografiak daukan erritmo estrukturarekin, loop bat denez, paranoiaren antzeko zerbait sortzen da zirkuituan zehar eta kontrol sistema batean pentsa dezakezu, ezkutuko kontrol sistemetan eta abar. Ikusle bakoitzak maila ezberdin batean konekta dezake. Pelikulak egin ahala ere ikasten duzu eta ikusleek harritzen zaituzte. *Illinois Parables*-en kasuan, adibidez, asko harritu nau izan duen harrerak. Egin dudana pelikularik aspergarriena iruditzen zait niri eta beste lanak baino askoz ere gehiago ikusi da. Badirudi jendea Historia interesatzen zaio. Nola ez! Eta jendeak atsegin duela Historia istorioen bidez nola kontatzen den entzutea. Baina, hala ere, ez daukat erantzun zehatzik.

Pelikula bat egiteko prozesuak dituen bi momentu zehatzi buruz galdetzea gustatuko litzazuke: alde batetik, grabaketa eta kamerarekin daukazu erlazioa; bestetik, edizio gelarekin daukazuna. Askotan zure pelikulak musikalak iruditzen zaizkigu, edizio gelan sortzen dituzun sinfoniak direla eta.

Gehienetan nik neuk filmatzen ditut



nire pelikulak baina beste kameralariekin lan egitea ere gustuko dut. "Found footage"-ekin [aurkitutako irudiekin] lan egiten dudanean beste kontu bat da, baina norbaiti nirekin filmatzeko eskatzen badiot, garbi izan behar dut erabat fidatzen naizela eta elkarrekin komunikazioa ona dela. Era honekin lan egiteak begirada zabaltzen dizu, filmatzen ari zarenean nahiko miope bihurtzen baitzara. Hala ere, uste dut nik oso harreman ona daukadala nire kameralariekin. Ez naiz filmatzen duen bitartean begi bat ixten duen kameralaria, zabal-zabalik izaten ditut beti bi begiak. Nire zinema eta mundua ikus ditzaket aldi berean. Kameralari askok egingo dute horrela seguruenik. Oso lagungarria da eta.

Nire kameralari bilakatu nintzen hasieran, ez bainekien oraindik zer nahi nuen eta ez nion inori azaldu nahi zeren bila nenbilen. Kamera erabiltzen nuen



TABAKALERA

bitartean zerbaiten bila ibiltzen nintzen, beraz nola aurki zezakeen inork ni bi-latzen ari nintzen hori? Imajina ezazu itsu bat eta bere ondoan, bere orde eta bera izango balitz bezala, mundua ikusi eta sentitzen duen beste pertsona bat. Ez dauka zentzurik. Nire kameralari bi-lakatu nintzen, kamera nire zentzumen organoa baitzen. Eta asko gustatu zit-zaidan. Hala ere, egia esan, gero eta in-teresgarriagoa iruditzen zait beste nor-baitekin lan egiteko aukera. Bion arteko komunikazioan egon daitezkeen itzul-pen, hutsune edo porrota interesatzen zaizkit. Nik inoiz imajinatuko ez nuen ezer ekar lezake eta.

Muntaketan berriz, diktadore sama-rra naiz (barreak). Hori ez diot inoiz inori utziko. Erabat autoritarioa naiz. Ni neu eta editatze gela. Besterik ez. Nire ustez hor egiten da zinema. Ni ez naiz gi-doilaria, salbuespenen batekin, ez naiz inoiz gidoitik hasten. Forma ediziotik

ateratzen da. Niretzat zinema egiteko gozamina editatze gelan dago. Gozame-na da ustekabeen zerbait probatu eta funtzionatzen duela ikustea. Mozketa eta lotura gehienak saiakeretatik atera-tzen dira. Lehenago bururatu ez zaizki-dan aukerak dira.

Soinuari buruzko ideia interesgarri bat aipatu duzu noizbait: soinuak erdian egoten uzten dizu. Nola egiten duzu lan soinuarekin eta nola erlazionatzen duzu irudiarekin?

Nire ustez pelikularen erdia soinua da. Pelikula mutu bat egitea erabakiko banu ere, soinua pelikularen zati handi bat izango litzateke. Agian soinua peliku-laren alderik subertsiboena dela esan-go nuke, ez baitugu soinuan hainbeste pentsatzen. Begiak buruaren aurreal-dean ditugunez, ikusten dugun edozein gauzak beti norabide bakarra dauka. Ikusten duzun hori beti egongo da zure

» “Soinua pelikularen alderik subertsiboena dela esango nuke, ez baitugu soinuan hainbeste pentsatzen. Ikusten duzun hori beti egongo da zure aurrean. Entzuten duzuna berriz, 360 gradutan dago”

» “Ez naiz filmatzen duen bitartean begi bat ixten duen kameralaria, zabalik izaten ditut bi begiak, nire zinema eta mundua aldi berean ikusteko”

» “Zinemaren helburua da ikusgai egitea idatziz, argazkiekin edo bakarrikzeta batekin ezinezkoa litzatekeena”

aurrean. Entzuten duzuna berriz, 360 gradutan dago. Nire ustez, sortzeko eta adierazteko, soinua irudia baino askoz hobe da. Uste dut ez garela kontura-tzen soinuak zein puntutaraino sortzen duen espazioa. Irudiak nora begiratzen dugun kontrola dezake baina benetan harrapatzen zaituena soinua da. Soinua enfatikoagoa da eta benetan begirada zuzentzen duena. Horregatik gustatzen zait soinua manipulatzeko: nola senti-tzen dugun harraldiaren denbora, nora zuzentzen dugun gure begirada, uniber-tsoa zein izugarri imajinatzen dugun. Irudiak hori lor dezake baina dirutza baten truke. Soinuak berriz, gela txiki bat edo hiri oso bat sentiaraz dezake eta askoz ere merkeagoa da. Oso eragin-korra da munduaren eskala soinuaren bidez sortzea. Niretzat soinua da gakoa. Soinua zinemagile izateari lotuta ez ba-lego, uste dut ez nintzatekeela zinema-gilea izango. ■

The Handmaid's Tale

ASKE IZAN NAHI DUT, EZ AUSART

The Handmaid's Tale telesailak, Margaret Atwood idazlearen eleberrian oinarrituta, etorkizun distopiko batean kokatzen gaitu. Diktadura fundamentalista moduko bat ezarri da eta emakume gazteak ohelagun gisa bizitzera behartuak izan dira, beraien jaunari seme-alabak "emateko". AEBetako presidentea eta kongresukide gehienak hil ostean, erregimen teokratiko bat ezarri da, hau da, buruzagi politikoak eta erlijiosoak bat datozen eta bertako erlijioak gobernuaren politikan eragin handia duen sistema politikoa.



Gaizka Izagirre

@Gaizka_Izagirre

Hortik aurrera, AEBak "Gilead Errepublik" izenez ezagutuko dira. Gizarte berri horretan balore moderno gehienak desagertu dira. Gilead-en hedatu den ugalkortasun arazo larri bat dela eta, emakumeak bigarren planora baztertuak dituzte, objektu huts bilakatuko dira eta haien obarioak bakarrik hartuko dituzte baliagarritzat.

Black Mirror eta batez ere *Children of men* bezalako kontakizun bikainetatik zuzenean edaten duen istorio ilun eta gogor honen protagonista June da, Elissabet Moss aktore bikainak era zoragarrian gorpuzturikoa –urteko izendapen guztietan egotea espero dut–. Altxamendu puritano horren aurretik argitaletxe batean ari zen lanean eta diktaduraren hasierako fasean familia osoa galdu zuen. Aurreko bizitzako oroitzapenei eutsiz bizi da, nahiz eta badakien senideak berriro topatzeko aukera oso urria dela. Baina June –Offred izendatua– tinko mantentzen duen euskarri bakarra hori da. Hori eta, noizbehinka, barrenetik ateratzen saiatzen den ausardia –nahiz eta "aske izan nahi dut, ez ausart" leloa den telesaileko emakume guztien garunean itsatsirik dagoena, beren "nagusien" kapritxoan menpe bizitza miserable eta gogor baten lokatz nazkagarrian harrapatu bizi baitira–.



Gezurra dirudien arren, argumetu harrigarri hori ez da telesail honen alde sendoena –ez bakarra behintzat–, "nola" kontatua dagoen are latzagoa baita. Teknikoki bikaina da, ia perfektua, esango nuke. Planoen antolaketa eta egitura koherentzia osoz eginga dago. Sinbolismoz eta esanahi ezkutuz kargaturik dauden eta margolari batek eginak diruditen konposaketa itzelak aurki daitetzke, leihoetatik etengabe sartzen diren eguzki izpiek transmititzen dutena, adibidez.

Horrez gain, hasieratik erakusten duen zerbait da erritmoaren kontrol milimetrikoko eta oso zehatza. Era zoragarrian tartekaturiko *flashback* batzuen bitartez, Juneren mundua lehenago nolakoa zen erakusten du. Protagonistaren off-ahotsa eta sentimenduz be-

teriko irudi bortitzen bitartez, ikuslea nokeatuta uzten du. Kontrapuntu gisa, abestien aukeraketa eta muntaia oso eraginkor bati esker, orainaldia eta iraganaren arteko kontrastea era ikaragarrian igortzea lortzen du. Elementu guzti horien batuketarekin, atal guztietan errusiar mendien sentimendu moduko batean igoarazten gaitu *The Handmaid's Tale*-k. Eta hori gutxi balitz, maisutasunez idatzitako gidoi zoragarria ere gehitu behar diogu. Hari askeak topatzea ezinezkoa den horietakoa.

Badakizue beraz, aurreko telesail berri baten bila bazabiltzate, hau izan liteke aukeraketa bikainena –eta baita gogorrenena ere, kontuz!–. Gainera, aitzakiarik ez duzue, hamar atalak Euskal Herrian HBOn bitartez ikus ditzakezue. ■

Jaietako kontzertuak Hegoaldeko hiriburuetan

ZER EGIN DUGU GAIZKI HAU MEREZI IZATEKO?

Kontzerturen batera joateko gogo daukat uda honetan, gustatzen zaidalako musika areto itxietatik ateratzea, kalea hartzea, beste erabilera batzuk izaten dituzten lekuetan nagusitzea. Gogo hori daukat beraz, eta okurritu zait begiratzea zer menu musikal prestatu diguten udalek aurten Hego Euskal Herriko hiriburuetakoa jaietan.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Bilaketaren emaitzak pantailan daukadala, konstatatu dezaket 1) “gogo daukat” esatek “gogoa neukan” esatera pasa naizela eta 2) hori gertatzearen arrazoiak dela ez daukadala premiarik ikusteko eszenatoki handietarako programatu dutena, izan ere 3) eskaintza ikaragarri aurreikusgarria da eta 4) badi-rudi antzeko softwarea erabili dutela lau hiriburuetan jaietako kontzertuen karte-la osatzeko, nahiz eta 5) ez dakidan zein den programa informatiko horren izena, baina 6) emaitzak aztertuta, ulertzeraz iritsi naizen nola funtzionatzen duen.

“Arrisku ezaren printzipioa” da funtsezko osagaia gure hirien jai handietan zein musikari kontratatu erabakitzean, kontua ez baita programazio kultural aberats bat eskaintzea, zerbitzu publikoa eta tontakeria horiek, keba. Kontua da jende pila bat elkartzea, txanda horretan tokatu den politikariak esan dezan aurtengo festa ere arrakasta totala izan direla eta [jarri hemen kopuru astronomiko bat] pertsona joan direla musika emanaldietara.



Los Manolos taldeak Donostian joko du Aste Nagusian.

Baina tira, den-denak ere ez du balio hori lortzeko. Azken finean, hiriko festa dira eta lokalismo hutsagatik bada ere, gidioak eskatzen du zaharmintzen hasita dagoen bertako artistaren bati plaza ematea: Donostiak La Oreja de Van Gogh-ekin bete du baldintza eta Bilbok El Consorcio-ekin –kasu honetan zaharmintzen hasita dagoela esatea eskuzabal samarra ere bada–; Iruñeak berriaz, Serafin Zubirirekin. Hiri Buruzagian El Columpio Asesino ere kartelean jarrita artista lokalaren kuota eta berri-tasuna uztartu dituztela pentsatzen baduzu, begiratu zein mendetan hasi zen talde hori jotzen.

Beti sartu behar dira ibilbide luze samarreko eta definitiboki hondoa jotako artista espainiarrak ere eta 2017ko jaie-tan espezie hori asko ugaritu da: Chenoa eta Los Secretos Donostian, Amaral eta Antonio Orozco Bilbon, M-Clan Gastei-zen... Eta eskaintza oso zaharrunoa ge-ratzen ari denez, konpentsatzeko iazko hit bat jotzeko prest dagoen norbait. Aurten Morat kolonbiarrek beteko dute

funtzio hori Gasteizen eta Donostian –2016an *Como te atreves*-ekin belarriak odoletan utzi zizkiguten–.

Ia egina dago, falta den bakarra da tronpetismo pixka bat –Vendetta Iruñean, En Tol Sarmiento Gasteizen– eta rumba ere bai, udako beroari aurre egiteko ondo baitator gitarra bencilado-re baten gisa jotzea –Los Manolos Do-nostian, agian Ernesto Gasco zinego-tziak lagunduta; Gipsy Kings Iruñean–.

“Baina itxaron, ez itxi kartela: euskal-dunak haserretuko zaizkigu”, dio tek-nikari batek. “Egia”, erantzun dio zine-gotziak. “Benga, azkar, begiratu nork ekar dezakeen jende pixka bat euskaraz kantatuz, baina ez konplikatuz gehiegi”. Emaitza: Zea Mays lau hiriburutatik hi-rutan –Bilbo, Iruñea, Gasteiz– eta Goza-tegi lautik bitan –Donostia, Iruñea–.

Panorama hori izanda, herri mugi-menduen jai-esparruetako programa-zioak bakarrik obratu dezake mirakulua, kontzerturen batera joatera motibatuko gaituena. Baina nik mirakuluetan sines-teari aspaldi utzi nion. ■

Gipuzkoako Herriartekoa

GIZONEN ARTEAN

Ez dira gutxi izan bertso-eskolatik nahiz parranda edo lagun girotik jauzi egin eta herriartekoan parte hartu dutenak. Ordea, perfil berri horri erantzuten dioten parte-hartzaile guztiak gizonetzkoak dira. Emakumezkoa publiko aurrean dagoenean nolabait “ez dagokion” eremuan dago oraindik ere, eta ondorioz, eremu hori okupatzea ondo aritzeak soilik justifika lezakeela dirudi. Honek guztiak zer pentsatua eman beharko liguke: azken herriartekoak kolektiboki nahiz pertsonalki egin beharreko etxeko-lanak utzi dizkigu.



Ane Labaka Mayoz

@anepirata

ARGAZKIA: GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Maiatzaren 27an jokatu zen Gipuzkoako Herriarteko finala Azpeitian. Giro beroa sortu zen Izarraitz pilotalekuan eta txapelketaren parte izandako guztiok festa handi baten moduan bizi izan genuen. Bukaeran oholtzara batzuk soilik igo baginen ere, egia da era batera edo bestera asko eta asko izan garela ekimen honen parte, guztira 38 talde izan baitira otsailetik bertsolaritzaren ekosistema osoa elikatzen jardun direnak.

Datuen arabera 280 parte-hartzaile izan dira orotara talde bakoitzeko bertsolari, gai-jartzaile, epaile nahiz ordezkariak zenbatuta eta hauei gehitu behar zaizkie, noski, inguruan saltsan ibili direnak; otorduak prestatu dituzten sukaldariak edo saioak grabatu nahiz kartelak pegatu dituztenak, besteak beste.

Txapelketa honen bidez Gipuzkoako bertso mugimendua bultzatu, indarberritu eta ikusarazi nahi izan da eta behin

bukatuta helburu hauek bete direla azpimarratu daiteke, ezbairik gabe. Zorionak, beraz, antolatzaile nahiz parte hartzaile guztiei. Polita izan da beste bertso-eskolekin sarea josiz norberarena indartzea.

Nire ustez, hala ere, Gipuzkoan bertsolaritzak duen osasun ona ez da hila betetako bide honetatik atera deza-kegun ondorio bakarra. Esango nuke txapelketa honek hausnarketarako bide ematen duten zenbait hari mutur ere utzi dituela eta horietako batzuei tiraka jardungo naiz lerrootan.

Gauza jakina da begiratzeko modua- ren arabera ikusten dugula aurrean dau- kaguna eta gero eta emakume bertsolari plazandre gehiago daudela han-hemen- ka entzuten dugun garaiotan, zilegi de- ritzot bukatu berri den herriartekoari betaurreko moreak jantzita begiratzeara. Genero ikuspegiarekin ari garenean as-



kotan errepikatzen dugu zenbakietan soilik oinarritutako datuak ez direla inoiz nahi genukeen bezain osoak, hau da, kuantitatiboki aritze hutsak askotan ez digula benetako asimetriak adieraz- ten uzten. Alabaina, kasu honetan zen- bakiei erreparatu nahi izan diet.

Aipatu bezala, 280 parte-hartzaile izan ditu txapelketak eta hauetatik 68 izan dira emakumezkoak, laurde- na baino gutxiago. Talde bakoitzaren barneko funtzioei begiratzuz, 12 eta 16 emakumezko jardun dira epaile eta gai -jartzaile lanetan, hurrenez hurren. Pro- portzioan emakumezkoek gehien bete duten funtzioa taldeko ordezkariarena izan da, 38 taldeetatik 17tan izan baita emakumezkoa beste taldeekiko nahiz Bertsozale Elkartearetik harremanaz arduratu dena.

Bertsolariak izan dira, hala ere, txapelketako protagonista nagusiak eta



talde bakoitza hiruk edo gehienez lauk osatu dute. Hain zuzen ere, emakumezko bertsolarien proportzioa da adierazgarrien suertatu zaidana. Kantatu duten 135 bertsolaritik 23 baino ez dira neskak, zenbaki borobilagoetara joz, 6tik 1 baino gutxiago. Are adierazgarriagoa da kopurua, herriartekoaren hasierako helburuetako bat kontuan hartzen badugu. Izan ere, tokian tokiko bertso-eskolek ahalegin berezia egin dute taldearen babesean bestela plazara animatuko ez liratekeen bertsolariak jendaurrean kantuan jartzeko. Horrela, ez dira gutxi izan bertso-eskolatik nahiz parranda edo lagun girotik jauzi egin eta herriartekoan parte hartu dutenak.

Izen zerrendari begira, ordea, azkar oharatuko gara perfil berri horri erantzuten dioten parte-hartzaile guztien izenak gizonezkoenak direla. Herriarteko honetan parte hartu dugun emaku-

meen gehiengoak aurreko Gipuzkoako banakako txapelketan ere parte hartu genuen eta gainerakoak lehenago parte-hartzaile izandakoak edo Eskolarteko Txapelketatik datozenak dira. Ez dago, beraz, bertsotan hain ondo egiteko segurtasunik ez duen arren bere buhari jendaurrean hain ondo ez egiteko lizentzia eman dion emakumezkoarik. Are gehiago, bertso-udalekueetan edo beste zenbait eremu informalagoetan bertsotan entzun ditudalako ondo egiten dutela dakidan zenbait neska isilik geratu dira eta nabarmentzekoa da horietako askok ordezkari papera hartu dutela taldearen baitan.

Antzera gertatzen da taberna-giroko bertso-txapelketetan ere; Hernaniko tabernetako txapelketa datorkit gogora eta baita Bergarako herriko txapelketa ere. Emakumezkoa publiko aurrean dagoenean nolabait "ez dagokion" eremu

batean dago oraindik ere, eta ondorioz, eremu hori okupatzea ondo aritzeak soilik justifika lezakeela dirudi.

Honek guztiak zer pentsatua eman beharko liguke eta azken herriartekoak ere kolektiboki nahiz pertsonalki egin beharreko etxeko-lanak utzi dizkigulakoan nago. Badago zer aldatua eta aldaketarantzko bidean, badago zer hausnartua ere. Adibidez, emakumezkoren bat zegoen taldeetan nola egin da bertso-saioko lanen banaketa? Zenbat emakumezko kantatu dute umorearekin eta bizitasunarekin lotutako zortziko txikiko nahiz puntuak erantzuteko ariketetan? Zenbatek erabaki dute (edo erabaki gabe zuzenean onartu dute) seriotasunarekin eta sakontasunarekin lotutako hamarrek txikikoak nahiz bakarkakoak beraientzat egokiagoak zirela?

Eta zenbakiek ez dute gezurrik esaten. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Talentu, adikzio eta arazo psikologikoak



Amaia Alvarez Uribe



Gelditu zaitezte gurekin

ANA MALAGON

Elkar, 2017

Ipuin bilduma honetako hamalau izenburuek azpimarratzen digute narrazio bakoitzean zeri erreparatu behar diogun: eguneroko bizimoduak ekartzen digun miseria erakusten zaigu gordin eta zuzen lehen pertsonan hitz egiten digun ahots narratiiboaren bidez.

Literaturaren funtzioetako bat bere garaiko jendartearen isla izatea da, hau erreproduzitu edo deseraikitzeke. Eta hori da ondoen egiten duena egileak ipuinotan. Multinazionalen, neoliberalismoaren eta AEBen inperioaren globalizazio eta kontsumismo garai honetan bakarrik gaude eta saiatu behar gara “nor” izaten, ingurukoekin harreman (prekario)ak egiten, eta “zoriontasuna” lortzen.

Emakume izateko eta gizon izateko moduei begiratzen zaie *Duty free* edo *Jane Doe* ipuinetan; maitasunari eta sexuari, bikote harremanei, edo familiari buruzkoak topatuko ditugu *Non gorde behar diren ez dakizun gauzak*, *Logela zerbitzua* eta *Udaberri familiarra* narrazioetan; belaunaldien arteko konplizitate eta gaizki-ulertuak aurkituko ditugu *Egunen batean* edo *Zaborraren minutuak* testuetan.

Marina Garcés-ek dio egungo indibidualismo kapitalistan komunitatea eratzera jo behar dugula, besteekin elkarreraginean sartuz eta egoerarekiko kontrola galduz (ipuinotan agertzen diren egoerak gairatzeke, kasu). Subjektu haragiztatuok elkar (h)u(n)kituz partekatzen duguna aurkitu ahal izango dugula horrela (irakurleak sentituko duena testua irakurtzean).

Brigitte Vasallok ordea, esaten du aparatu sozialak akuilatuta gorputzak eta afektuak kontsumitzen ditugula, monogamia gairatzeaz eta poliamodioaz diharduenean (elkarrekiko egarri hori aurkituko dugu orriotan), hau da, eremu sexu-afektiboan kapitalismoak lortu duen azken konkista gorputzak eta desirak kontsumorako objektu bihurtzea dela (harremanok nola ulertzen ditugun hausnartzeko aukera ederra da liburu hau).

Generoa zehaztu gabe egongo da ipuin hasiera askotan eta protagonista sozialki nola kokatu behar dugun jakin gabe geratuko gara tarte batez. Maiz pertsonaia nagusiaren intimitatearekin identifikatuko gara eta bere mina partekatuko dugu. Aireportua, hotela eta ospitalea bezalako ezleketan Franz Kafka edo Lewis Carroll gurutzatuko ditugu. Gaixotasuna, zahartzarora eta heriotza brau agertuko zaizkigu.

Ana Malagonek bere bi liburuetan tonu eta estilo pertsonalak erakutsi dituela ezin da ukatu, begirada propioa du. Izan ere, gauzak argi esatera etorri zaigu: “Gure bizitza ez da igeriketa sinkronizatu bat”, baizik eta “talentu, adikzio eta arazo psikologikoen nahasketak bat”. ■



Ana Malagon Zaldua idazlea (Donostia, 1978).

» **TELEGRAMA**

Agur esateko tenorea iritsi zaio **Napoka Iria** taldeari. Baina azken aukera daukazu zuzenean ikusteko: uztailaren 7an Eibarko Coliseo antzokian, ez galdu! *STOP* Uztailaren 6tik abuztuaren 31ra bitartean, **Tabakalera Taulara** ekimenaren baitan, soinua, gorputza, mugimendua, koreografia, eta hizkuntza langai dituzten hainbat proposamen plazaratuko dituzte *STOP Game of Thrones* tele-sailaren zalea? Bermeoko Kafe Antzokian zita bat duzu uztailaren 11n: seigarren denboraldiaren maratona eskainiko dute *STOP*

» **KONTZERTUA**

Familia giroan



Montse Auzmendi

Txaikovski eta Waltonen obrak

ORCHESTRE NATIONAL BORDEAUX
AQUITAINE | EUSKADIKO ORKESTRA
SINFONIKOAK GONBIDATUA

Zuzendaria: Paul Daniel.
Gasteizko Principal Antzokia.
Ekainaren 21a.

Paul Daniel, orkestra zuzendari britainiarra
(Birmingham 1958).



Euskadiko Orkestra Sinfonikoak amaitu du 2016/1017 denboraldia. Eta azkeneko saioaren protagonista orkestra gonbidatu bat izan da, Orchestre Nationale Bordeaux Aquitaine hain zuzen ere, Paul Danielen batutapean. Kontzertu ederra, biribila egin zuten, benetan. Soinu landua, enpastatua, fraseaketa leuna, intentsua dastatu genituen hasieratik bukaeraraino. Kontuan hartuz Gasteizko Principal Antzokiaren deabruzko akustika (beti esaten dudan bezala) mirari bat da hain inpresio ona ematea. Bi obraz osatu zen egitaraua, oso ezberdina, baina biek bazuten ezaugarri komun bat: lan pasionalak direla.

Txaikovskiren *Biolin eta orkestrarako kontzertua*, op. 35 obrak oso elementu

bitxiak ditu, eta justu horrek ematen dio edertasun arraro hori. Hasten da gai gozobatekin, gero inon agertzen ez dena obra osoan; dantza moduko pasarteak mugimenduetan kokatuta. Esan bezala, perfekzio inperfektua du lan honek

eta hori oso erakargarria da. Aldi honetan bertsio sendoa izan genuen, Vadim Gluzman biolin jolearen eskutik. Bakarlari honek (Ukrainan jaioa baina israeldar nazionalitatea duena) errusiar tradizioko jotzeko era du. Soinu biribila eta boteretsua, ñabardura anitzekoa, alde erromantikoa azpimarratzen duena. Horrez gain, erraztasun aparta erakusten du zailtasunak gainditzeko. Bere eskuetan guztiz sinplea zirudien partiturak, eta denok dakigu nolako zailtasunak dituen. Orkestrak ere benetan ongi bete zuen bere lana. Soinu orekatua azaldu zuen, inoiz zapaldu gabe bakarlaria, efektu politak lortuz.

Saioaren bigarren zatian, William Waltonen *1. Sinfonia, si bemol minorean* entzun genuen. Esan daiteke Ingalaterrako obra ezagunenetako bat dela, bere aberastasun musikalengatik eta melodia edertasunarengatik. 1935. urtean amaitu zuen Waltonek lan handi hau, eta askotariko eraginak begi bistan daude lau mugimenduetan zehar: Sibelius, Stravinski, Prokofiev, eta Ravel (oso nabaria *Andante con malinconia* hirugarren mugimenduan) hor daude. Baina, han eta hemen hartutako ttanta hauekin, Waltonek jakin zuen estilo berezi eta distiratsu bat lantzen. Bordele-Akitaniako Orkestra Nazionalak azpimarratu zuen lanaren distira eta adorea, bertsio boteretsu eta zirraragarria eginenez. Bis bat bota zuten, gainera: Edward Elgaren *Enigma bariazioak* obratik hartutako pasarte bat. Gutizia. ■

Zisneak



SWANS

Ekain hasieran, Miarritzeko
Atabal aretoan.



Andrea Zubozki

Pertsona anitzek aipatu zidan Swans taldea, doinu luze, errepikakor eta pisetan famatua den taldea. “Talde mitiko” bezala presentatua da. Izan ere, 35 urte musikan hasi eta segitzen dutela. Kontzertu gelarat sartu aitzin, afixak denetan: “Kasu! Swans taldea biziki azkar (ozen) aritzen da! Belarrien babes-tekoak eskatu ostatuan!”. 35 urtez belarriak xintxikatzen, ez da gutxi! Nahiko kontent sartu naiz kontzertu gelarat, taldearen bolumen azkarrak nire barneko organo eta likidoak inarrosiko dituen ilusio-esperantzarekin.

Taldea sei pertsonaz osatua da. Ezkerretik eskuinerat *slide guitar* jole bat, pianista, bateria-zinbalum jolea, baxista, gitarrista, eta denen erdian, kantari gitarrista den Michael Gira, taldearen burua. Taldekide gehienak adin ederrerrit iritsiak dira. Kasik denek hiltzaille burua dute. Baina kasu! Ez ukabil joka ibiltzen diren horietarik! Pisu batetik tirokatuko duten pertsonen eitea

gehiago dute Swansekoek. Profesionalak. Eta perfekzionistak.

Taldeko gaiztagileak, abeslariaren zerbitzuko dira. Haren aginduei obeditzen diete. Sarraski gogoa baldin badu, bateriari eskatuko dio tinbalen sunsitzetza. Eraso kirurgiko baten gogoa duelarik aldiz, pianoari eskatzen dio bere teklen lehertzea. Haren kantatzeko modua nahiko berezia da. Notak luzaz atxikitzen ditu, hitzak emeki erraiten. Haien musika pisu eta errepikakorrari indar gehiago ekartzen dio.

Soinu (biziki) azkarra, doinu errepikakorrak.. errazki sartzen gara egoera erdi hipnotikoan. Pentsatu dut belarriak babestu gabe ezin dela egon kontzertu gelan. Sobera bortitza da bolumena. Kantuz kantu, “Swans armadak” eraso berriak botatzen ditu. Eta Michael Girak gero eta agindu gehiago ematen dizkie beste musikariari. Gehienetan haien kontra haserretuz. Noiztenka kasik umiliatuz (nik hala

bizi izan dut). Erran behar da nahiko bortitza dela kantaria. Lehen kantuan dela, lehen lerroan den argazkilaria zango ukaldika jotzen saiatu da. Bortizkeria musu-truk.

Kontzertua aitzinatzen den ber, jendea Swansek eskaintzen duen giroan sartzen da, bakoitza bere munduan, publikoko pertsona anitzek begiak hetsirik. Hala ere, poliki poliki, entzule batzuek kontzertu gela desertatzen dute. Bat trenpu txartzen da baita ere.

Bi oren pasa aritzen dira, 6-7 abesti emaiten dituzte orotarot (120/6,5= ?...).

Ez naiz nahi bezain beterik edota husturik ateratzen kontzertu gelatik. Kanpoan denen oharrak direla “Uaa! Bikaina zen!”, ez dut sobera ene iritzia partekatu nahi; hasiko naiz mokofinarena egiten... begiak hestean naiz ontsa sentitzen, aintzira beltzean ez baita aski ikusten. Luma guziak erretzean baizik ez du zisneak argitzen. ■

Hitz gezidunak

Gaia: Bizkaiko zinema jaialdiak

LAGUNARTEA, TALDEA ①		LOHITSU BOKAL ERREPIKATUA		② JAURTIKETA		JOAN DEN URTEA COPYRIGHT		③		DIGESTIO- HODIAREN ZATI (ALDE- RANTZIZ) ROENTGEN		④ ISUSKI, GINAR	
								ATERA 9 ERROMA- TAR ERARA					
TRINKO, HARROTU GABE LANDA, SALBU						HITZ EMATEA AZTERKE- TAREN KALIFIKAZIOA				SHAH RUKH KHAN SOLDADUEN IRATZAR- GAILUAK			
		IRENDU DENA ONESTEKO EKINTZA					LAKIOA, SEGADA LEHEN ETA LAUGARRIN BOKALAK						
TXERRIKI- XERRA ⑤								MUSKULU IKERKETA					
				GAI BAKUN BATEN ZATIKIA SARRERA							EUSKAL FONEMA TXANTXAZ, BROMAZ		
PISUAGO BIHURTU, ASTUNDU	ESANEZ SENDOTASUN						JULIAN ..., TELEBISTA AURKEZLEA EGINKIZUN						
						LATZ ESKAERA						NITROGENOA PILA, MULTZOA	
NEPTUNIOA PARADISU BIBLIKOA		EZ ARRAK NAUKA							ANIMALIA- REN UME AUTONOMI ESTATU				
				JAIOBERRIEN ELIKAGAIA IZENA (LA- BURDURA)						BURDINA MOLIBDENOA			OINARRIZKO EDARI
NEBAK ERAUZTEKO EKINTZA							SETATU TONA						
									LOTSAGABE				

Jokoa ebazteko lagungarri
izango dituzu definizio hauek:

1 Bilbon egiten den Nazioarteko Bideoklip eta Film Laburren jaialdia. 2003an antolatzen hasi zenetik, antolatzailleen hitzetan jaialdi transgresore eta lotsagabea den hau, ikus-entzunezko kulturen erreferente bihurtu da.



② Simone de Beauvoir Elkarte Feministak antolatzen duen ziklo honek emakumeek zuzendutako filmak bultzatu eta zabaltzeko xedea du. Horretarako, mundu osoko jaialdietan sarituak izan diren film luze eta laburrak biltzen ditu, solasaldiekini eta omenaldiekini batera.

③ Bilboko gaylesbotrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoan Jaialdia 2004. urtean jaio zen Hegoak elkartearen eskutik, kultura, zinema eta arte eszenikoaren bidez sentsibilizazioa bultzatzeko asmoz. Urtero antolatzen da Bilbon otsail inguruan, eta martxoan Euskal Herriko herri ugaria eramatzen dute.

4 Zallako Urria zinema taldeak antolatzen duen Nazioarteko Film Laburren Lehiaketa. Urtero egiten den lehiaketa hau zinegile ez profesionali zuzenduta dago eta sail ofizialera aurkeztutako lanak azaro amaieran proiektatzen dituzte Zalla zine-antzekian.

5 Bilboko Udalak antolatzen duen Zinema Fantastikoaren Jaialdia; aurtengoa 23. edizioa izan da eta maiatzean egin da. Inaugurazioa Eduardo Casanova zuzendari eta antzezle madrildarraren lehenengo film luzea den *Pieles* lanaren aurkezpenarekin egin zuten.

Ebazpenak

[illegible]

Koldo Amestoy. Hitzekin irudiak marrazten



JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Lotsatia oholtzan

"Bakartia eta lotsatia nintzen. Dena gaizki! Baina gaizki horrek eman zidan oholtza gaineko arteei lotzeko ausardia. Ipuina ezagutu nuen marioneten bitartez. Horrela eneganatu nuen jendeen aitzinean lasai izateko ahala. 1983an euskal kontalari gisa gomitatu ninduten Dordoinako *Conteurs du monde* festibalera. Mundua deskubritu nuen: kontalariak nor ziren, zer kontatzen zuten, norentzat ari ziren, ipuina helduentzat ere izan zitekeela..."

Badu 30 urte pasa ipuin kontaketan dabilela Koldo Amestoy arruetar-sarrikotarra. Istorioak erritmo bizian kontatuz, entzule bakoitzaren begiradak eta belarriak pizturik atxikitzea du gogokoena ofizio horretan. Harrera nolakoa den ez du aldi oro sesitzen, baina ez da inkiet, arrazoa dakielako: "Bakoitzak badu entzuteko manera propioa, hitzak hartzeko manera propioa, irri egiteko manera propioa".

"Beste arteen gisara, ipuinek emozioak pizten dizkigute"

Jenofa Berhokoirigoin
@Jenofa_B

Hitzak elkarri josiz istorioak osatzen za-biltza.

Irudiarena da gehienbat ipuinaren mundua. Hitzak dira noski, baina hitzek pizten dituzte irudiak. Horretarako grazia du kontalaritzak. Hizkuntza bakoitzak aberastasun propioak ditu. Ikasten da, lantzen da. Pertsonalki, euskaraz eta frantsesez ari naiz eta bi hizkuntzetan plazer dut. Euskaldunek diote ageri dela euskaraz lasaiago naizela, azkenean errekurtsio gehiago dudalako. Baina, ipuina aberastuz batera, bi hizkuntzetan nituen jakintzak aberastu ditut.

Zer duzu helburu ipuin bat kontatzearekin?

Maite dut martxa, pandero batekin lan egiten dut, erritmo baten gainean ari naiz kontaketan. Funtsean, panderorik gabe ere badu erritmoa hitzak berak. Erritmo hori mantentzea, jendea erne-erne atxikitzea, jendearen belarria, begirada eta atentzioa pizturik atxikitzea... Hori dut helburu. Bizi-bizia beti, harreman bizi hori gustatzen zait. Testua libre dugu, oso ariketa librea da. Demagun, elizako ezkilak jotzen hasi eta erritmo hori sar


dezakegu ipuinean; gelako mugimendu bat ere integra dezakegu berdin-berdin. Badugu istorioaren barnean eta aldi berean kanpoan izateko aukera; orokortasun batean kokatzen da gure hitza eta ingurukoa erabil dezakegu.

Zein funtzio du ipuinak?

Ni gehienbat helduei zuzentzen natzaie. Beste arteen gisara, emozio batzuk pizten dizkigute ipuinek. Ez dut uste balentria bat egiten dugunik, baina entzulearen baitan zerbait esnarazten dugu, bere barnekoak mugiarazten ditugu: ametsak, bidaia, baina gauza txarrak ere artetan... Bestalde, biziaz ikasteko ere balio du (txoriez, arbolez, aspaldiko hitz zaharrez...). Ene istorioetako herriak Ibarxola du izena. "Ibarxolan horrela erraten da..." zehaztuz, irakaspen batzuk egin ditzaket, tokiko hitzen sinimoak emanez adibidez.

Nolakoa da Ibarxola?

Herri txikia da. Erreka batek trabeskatzen du, zubi bat ere bada, herriko plaza. Etxe zenbaitzu badira eta bakoitzak



KOLDO AMESTOYK UTZIA

badu bere istorioa. Ikuskizunez ikuskizun muntatutako herria da. Ibarxola denena da, Euskal Herriko hainbat pertsonaia eta istorio agertzen dira bertan.

Balore batzuk oroitarazteko baliatzen duzu ipuina?

Bai, baina arinki, ez dut pisuegia izan nahi. Gehienbat natura eta jendeen arteko harremanei buruz ari naiz. Mezua plazaratzen dut, arinki, ez da manifestua; batzuek entzuten dute, besteek ez. Baina zerbait markatzea inportantea iruditzen zait, arinki bada ere; adibidez, irudien bidezko sinboloekin.

35 urte iraganik, entzulegoa ere aldatu dake.

Hemen Iparraldean oso gaizki gara, gure artea mendrea baino mendreagoa da. Ikuskizun bat muntatu eta 40 bat jende heldu zaizkigu, horretan gelditzen da. Ipuingintzan ez da bertsoan, dantzan ala musikagintzan dagoen arrakasta. Jendeak ez du ezagutzen arte hau, ez daki baitezpada zer den kontalari izatea... Dena dela, ezin da esplikat, zuzenean bizi beharrekoa da. Egoera miserablea dugu Iparraldean. Hegoaldean aldiz, jende gaztea hurbiltzen ari da, Frantzian ere berdin. Hortik profesionalki abiatzen dira batzuk, baina hemen arras gutxi. Eta ez da hizkuntza kontu bat, frantsesez izanda ere hemengo jendeak ez gaitu deituko. Edo arras tristetia, eta bai, nonbait bai, basatia naiz eta ez dut ene burua profesionalki saltzen. Hori euskaldunen akatsa da: "Gasna ona egiten, baina saltzen ez jakin!" [irriz]. Iparraldean oso zaila da eta azkenean, ene bidea Hegoaldean eta kanpoan egin dut. Domaia da zeren ez agertuz, jendeak ez daki ipuingintza badela, eta ez da kontalari gazterik abiatzen.

nean bizi beharrekoa da. Egoera miserablea dugu Iparraldean. Hegoaldean aldiz, jende gaztea hurbiltzen ari da, Frantzian ere berdin. Hortik profesionalki abiatzen dira batzuk, baina hemen arras gutxi. Eta ez da hizkuntza kontu bat, frantsesez izanda ere hemengo jendeak ez gaitu deituko. Edo arras tristetia, eta bai, nonbait bai, basatia naiz eta ez dut ene burua profesionalki saltzen. Hori euskaldunen akatsa da: "Gasna ona egiten, baina saltzen ez jakin!" [irriz]. Iparraldean oso zaila da eta azkenean, ene bidea Hegoaldean eta kanpoan egin dut. Domaia da zeren ez agertuz, jendeak ez daki ipuingintza badela, eta ez da kontalari gazterik abiatzen.

Mundu guztian ibili zara ipuin kontaketan. Belarria ezberdina dake han eta hemen.

Entzuleak diferenteak dira. Adibidez, Quebecen ume handiak dira helduak, ipuina erabat hartzen dute. Baina ez da beti argi zer nolako harrera dagoen; hori dira, entzuten dute, baina ez dakizu zein den erantzuna. Frantzian berean ere, eskualdeka umore ezberdina dute. Baina

"Gehienbat natura eta jendeen arteko harremanei buruz ari naiz ene ipuinetan. Baloreak arinki plazaratzen ditut, ez da manifestua. Baina zerbait markatzea inportantea iruditzen zait, arinki bada ere".

bakoitzak badu entzuteko manera propioa, hitzak hartzeko manera propioa, irri egiteko manera propioa. Zaindu behar da entzuleekin dugun harremana. Gerta daiteke auto-zentsura egitea noiztenka, justuki, haiek zaintzeko.

Labirinto bat osatzen duzu zure azken ikusgarrian.

Lan egiteko moldea aldatu dut: lehentasuna ez da hainbeste kontatzeta, baizik eta entzuleen erranak. Zortzi metroko labirinto batean ibilki dabil jendea, Jean Christian [Irigoien, *Galtxataburu*] delarik musikari. Hortik ateratakoan, bakoitzak zerbait kontatu behar du, izan berri on ala txar bat, anekdota bat... Parte-hartzaileagoa da. Jendea ez da ton-toa, badu kontatzeko eta errateko. Ez da ikuskizun hutsa, jendeari ematen diogu zerbait errateko edo egiteko aukera. ■



Jaurlaritzak dio denon artean eraikiko dugula herri hau

Eusko Jaurlaritzak auzolanaren aldarriari eutsiko dio bere logo korporatiboetan. Euzkotar exekutiboko bozeramaile gatz eta piperdun batek barreari nola edo hala eutsiz esplikatu duenez, denok gara beharrezkoak Euskadik aurrera egin dezan: "Miseria baten truke trenbidea egiten duen langile portugaldarra, lurra espropiatu dioten baserritarra, hilero milaka euro patrikara eramaten dituen sailburua...; ñabardura txikien gainetik, elkarlana da indartsu egiten gaituena".

"Jaurlaritzako kideok argi daukagu bidea", gaineratu du gizaseme jatorrak, "Euskadiren alde borrokatu behar gara, borrokatu egingo gara; defendatu egin behar badugu, defendatu egingo dugu; eta herria eraikitzeke pikotxa eta pala guk geuk hartu behar baditugu, ba... hitz egingo dugu".



Eusko Jaurlaritzako zenbait kide
bipil AHTren tunelean irteera
aurkitu nahian

SAREAN ARRANTZATUA

CCOO sindikatua utziko du Gorka Landaburuk



Zaragozako aireportuak armagabetze prozesuarekin bat egin du



Ondo enkoadratutako argazki batek erakutsi du Urkulluk Irungo alarde parekidea babestu zuela

Polemika eragin du Irungo EAJren egoitzako balkoian zenbait pertsona alarde parekideari bizkarra ematen agertzen ziren argazki batek. Alabaina, Joseba Behekoetxeak Twitterren demostratu duen moduan, benetako argazkia manipulatutuz errealitatea desitxuratuz. Argazki originalean ikusten denez, Iñigo Urkullu EAEko lehendakaria eskuak gorritu arte txaloka aritu zen eta jeltzaleen iturri fida-

garri samarrek diotenez, bere doblea bidali zuen Enkarterrira, egun horretarako programatuta zeukan ekitaldi ofizialera. Ahalik eta objektibotasun handienaz informatzeko daukagun bokazioari erantzunez, Beranduegin beharrezkoa iruditu zaigu benetako argazkia erreproduzitzea, irudi batek ezin baitu estali EAJk azken 20 urteetan egin duen lana emakumeek desfilean parte hartzearen alde aurka.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com